

DATORRENA

«If they come in the morning»

IRATXE URIZAR > 3

BERTSONAJEA: Mañukorta edo
bertsolari ezberdin baten kasua,
Amurizak liburu batean jasoa > 12

2015eko martxoaren 28a | VIII. urtea • 410. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



FEMINISMOAREN EMARIA

> 22 Jon URBE | ARGAZKI PRESS

**Jihadismoa, Aljeriarentzat
baliagarria den etsaia** 04

**Freetown, ondokoa ukitzerik ez
dagoen hiria** 08


**«Bertsonajea», Mañukorta edo
bertsolari ezberdin baten kasua** 12

**Herriko kirolariak haurren kromo
albumetan** 17

**e.lkarrizketa: Edurne Epelde eta
Miren Aranguren** 22



**e.lkarrizketa: Iñigo Lamarca
Iturbe, EAEko arartekoa** 26

In Fraganti: Iker Vergara 28



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** «If they come in the morning»
- 10 **Unai Fernandez de Betoño:** «Hazi arazi»
- 11 **Ramon Sola:** Bruselan bada, Baionan bada, Parisen bada...
- 19 **Xabier Mikel Errekondo:** Inklusioa
- 20 **Gorka Zozia:** Mareak mareatuta
- 21 **Laura Mintegi:** Errelatoa idatzi aurretik
- 25 **Amaia Ballesteros**
- 30 **Iratxe Esnaola:** Euskaltel: «Wifi is in the air»
- 31 **Maider Iantzi:** Korrika, opariak eman beharrean jaso egiten dituen Olentzero



{ datorrena } Iratxe Urizar

«If they come in the morning»

Nazio Batuen Erakundeak Egia Jakiteko Eskubi-dearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen martxoaren 24a. Horren kariatara, pasa den astean, Egiari Zor fundazioak aurkezpen publikoa egin zuen Bilbon, eta dokumental labur bezain mamitsua ikusteko aukera izan genuen bertan. Hamar minutu ere ez ditu, baina hainbat ahots eta irudi jasotzen ditu. Protagonistek sufritutako mina azaltzen dute, modu zuzenean, esaldi motzen bitartez: beraiek edo beraien senideek pairatutako gehiegikerien gaineko egia ezagutu nahi dute. Mendekurik ez dute bilatzen, baina bai errekonozimendua. Izan ere, horrela beharko du izan, etorkizunean bake sendoa eraikiko badugu: denon artean idatzi beharko dugu gertatu denari buruzko kontakizuna, samin batzuk alde batera utzi barik, biktimen arteko mailakatzea egin barik...

Pantailan ageri ziren aurpegiek mina eta nekea islatzen zuten, baita konfiantza eza ere, 30 urte eta gehiago errekonozimendurik gabe pasatu ondoren, gauzak aldatuko diren mesfidati baitira. Denon lana da, zalantzarik gabe, bermatzea errealitate horiek guztiak kanpoan geratzen ez direla. Argi dago oraindik ere bide luzea dugula aurrean (atera kontuak: bide bazterretan lurperatutako horien seme-alabek euren senideak eraman zituztenen izenak dituzten kaleetatik paseatu behar dute oraindik ere!). Zer esan, bada, denboran hurbilago dauden biktima horiez, «demokrazia garaia» deitu dugun epe horretan gertatuko horiez?

Martxoaren 24an bertan, euskal presoak Euskal Herritarzearen aldeko nazioarteko babes paregabea jaso dugu: 24 sinatzaile, 24 izen handi, sobera ezagunak guztiak, Europatik, Afrikatik eta Amerikatik heldutakoak. Dispersio politikaren aurka agertu dira denak ala denak, inoiz baino biziago dirauen salbuespenezko espetxe politikaren aurka, azaltzeko zaila eta justifikatzeko are zailagoa den egoera baten aurka. Eta, tamalez, oraingoan ere ez du luze jo Espainiak erantzun duen arte. Bruselan euskal presoek jasotako babes publikotik 24 ordu ere igaro gabe zirenean, Guardia Zibilak lau euskal herritar atxilotu zituen. Lauron ogibidea: presoan eta estatu biolentzia pairatu dutenen egoera salatzea. Eta atxilotu bakarrik ez, defentsarako eskubidea ere urratu zien epaileak, ukatu egin baitzuten euren konfiantzako abokatuen babesa jasotzea. Eta, zergatik? Inkomunikatu-

ta zeudelako? Bada, ez: abokatu horien aurkako kanpaina ere abiatuta zegoelako alde aurretik. Horrenbestez, abokatuek bezeroak nola eramaten zituzten ikusi behar izan zuten, ezertxo ere egiteko inolako aukerarik gabe. Presoa kartzelan, eta, orain, bere abokatua, bere medikua, baita bere senidea ere, kriminalizatuta.

Bruselako Adierazpena sinatu dutenen artean Angela Davis dugu, emakumezkoa eta beltza bera. Bi ezaugarri horien ondorioz, diskriminaziorik basatiena pairatu behar izan du, eta, hala ere, aurrekoan, ahotsa eta ukabila altxatu zituen berriz ere errepresioaren aurka. Gaur egun, lehen bezalaxe, Estatuak kolpatutako ondoan dirau, bere elkartasuna adieraziz. 1970. urtea zen, “If they come in the morning: voices of resistance” entsegua argitaratu zuenean. Kanta bihurtuta, irlandarrek eta euskaldunok urte luzez abestu genuen «*if they come in the morning, no time for love*»: ez dute uzten maitatzen gauean, sirena hotsaren beldurrez ezin lasai bizi ez Bostonen, ez Belfasten, ez Gasteizen.

Goizean etorri ziren oraingoan ere, minari aurre egiten ohituta dauden lau pertsona eramatera, besteen mina arintzen saiatzen diren lau langile bahitzera. Atxilotuen delitua: torturatuen mina sendatzen edo arintzen saiatzea (polizia-etxetik txikituta irteten diren horiena), senideen euskarri izatea (maite dituztenak birrintzera zuzendutako kartzela politika erraldoi bat dagoela ikusten dutenean).

Ezin ahantz daiteke atxilotuen artean “Inkomunikazioa eta tortura” lanaren egileak ere badaudela. Nazioartean ibilbide handia izan duen ikerketa horrek zera ondorioztatu du: benetakoak direla aztertu dituzten 45 euskal herritarren tortura salaketak, salatzaile guzti-guztiekin egia esaten zutela. Ikerketaren egileak Bruselan ere egon ziren, beraien lanaren berri ematen, nazioarteko adierazpena publiko egin den toki horretan bertan, hain zuzen ere. Eta handik etorri da atxiloketen aurkako erantzuna ere, laburra eta zuzena: «Nahikoa da!». Hala aldarrikatu dutenak ez dira atxiloketaren formaz ari (gugandik hurbil dauden beste kargu publiko batzuek egin bezalaxe); operatiboaren edukiaz ari dira, izen ezin sarkastikoagoak dituzten operatiboei buruz, xakeko jokaldien izenak dituzten operatibo horiei buruz, hain zuzen ere. Ez, honek ezin du horrela jarraitu, ez dira ez goizean ez gauean etorri behar. Euskal Herritik betiko aldegitia da egin behar dutena. •

Bruselako Adierazpena sinatu dutenen artean Angela Davis dugu, emakumezkoa eta beltza. Diskriminaziorik basatiena pairatu du

HERVEL GOURDELEN HERIOTZA

Jihadismoa, Aljeriako Gobernuarentzat oraindik ere baliagarria den etsaia

Herve Gourdel herritar frantsesa 2014ko irailean hil zen, Jund Al-Khalifa (Kalifa Herriaren Soldaduak) talde armatuak bahitu eta burua moztu ondoren. Ordutik, Aljeriako klase politikoari gertatutakoa argitzeko eskatu zaio behin eta berri. Izan ere, erregimenak Kabiliako jihadistiei nahi dutena egiten utzi diela uste da, amazigh mugimenduari kalte egiteko. Aldi berean, baina, jihadismoa baliatzen du erregimenak Aljeria nazioarteko terrorismoaren aurkako borrokan funtsezko bazkide gisa saltzeko. Urtarrilean Gourdelen gorpua frantses Estatura iristean ez ziren zalantzak bukatu, indartu baizik.

ARRASTOAK MENDI BIDEETAN

Kabiliako mendi bideetan ibilgailu blindatuek utzitako arrasto sakonak eta mendizale frantsesaren bilaketa lanetan kiskalitako materialak ikusten dira oraindik. Herve Gourdel mendi gidariari burua moztu ziotenetik sei hilabete pasa dire-

nean, baina, Kabiliako mendietan kezka eta harridura dira nagusi oraindik ere. Erregimenak Aljeriako terrorismoaren aurkako eliteko tropak, 2.000 soldadu inguru, beste 500 marinel eta fusilariren laguntzarekin, Djurdjura mendikatean hedatu zituen. Hala ere, segurtasun indarrek bertatik 100 kilometro ingurura, hiriburua inguratzen duen nekazaritza eremuan, aurkitu eta hil zuten Abdelmalek Gouri, hau da, bere garaian AQ-MI Magreb Islamiarreko Al-Qaeda erakundea utzi eta Jund Al-Khalifako buru bihurtu zena,

Estatu Islamikoarekin lotutako erakunde armatu berri hori zuzenduz. Ustez, bera zen Gourdelen heriotzaren arduraduna.

“El Watan” egunkariak eskainitako informazioaren arabera, Issers jaioterritik (Tizi Naith Aisha amazigeraz) lau kilometrora zihoan Gouri Peugeot Pathner auto batean beste hiru lagunekin batera: guztiak exekutatu zituzten. Harritzeko moduko datu bat: ESGN jendarmeriaren kuartelaren ondoan, metro gutxi batzuetara, exekutatu zituzten. Antzeko zerbait gertatu zen orain bi urte, 2013ko urtarrilean,


Herve Gourdel mendi gidariaren erretratua. Bere bahiketak eta heriotzak Aljeriako agintarien jardueraren inguruko zalantza ugari ipini ditu mahaiaren gainean. GAUR8

In Amenasen. 29 jihadistak hil zituzten orduan aljeriar indarrek, ustez nahiago zutelako amaiera hori epaiketa bat egitea baino. Gori eta bere kideen kasuan, exekuzioarekin frantsesek paraleloki beste ikerketa bat abian jartzeko aukera ere errotik ezabatzen zuten indar aljeriarrek. Parisko Fiskaltzako terrorismoaren aurkako taldeak ikerketa bat jarri zuen abian irailean, baina bi herrien arteko harremanetan tentsioa zen nagusi garai hartan: aurrera egin ahal izateko oztopo garrantzitsua. Handik hilabetera, Aljerko agintariek ezetz erantzun zioten Marc Trevidic epaileari 1996an Tibbheri-nesen hil zituzten zazpi fraide frantsesen buru hezurren laginak eskatzean.

«HAMARKADA BELTZA» GOGOAN

«Iraken 2013an sortutako Daesh muturreko mugimendu islamiarren talde bat zuen Aljerian, baina armadak kide guzti-guztiak hil zituen borroka ezberdinetan. Kezkagarria, ezta?», adierazi du Hocine Malti juristak, Sonatrach petrolio konpainia publiko handiaren presidenteordea izandakoak. Izan ere, bere analisisia indartzen duten elementuak ikusi ahal izan dira hasiera-hasieratik; «hamarkada beltza» gogora ekartzen duten elementuak. 1991z geroztik Aljeriak bizitako gerra zibilari esaten zaio «hamarkada beltza»: armada islamisten aurka, islamistek hauteskundeak erraz irabazi ondoren. Egun Egiptok bizi duen antzeko egoera.

Begi bistakoa zen segurtasun indarrek Kabiliako mendietan ez zutela Gourdelen bahiketarekin lotutako inolako terroristarik aurkituko. «Makina bat gerillari atxilotu izan ditugu, baina bideoan mendi gidari frantsesaren burua moztzen ageri diren horiek ez dute inolaz ere mendian ezkutuka ibili eta kobazulotan babesten diren gerillarien tankerarik», esan zuen Habib Souaida Aljeriako Armadako Indar Berezieta ofizial ohiak. Berak idatzi zuen “La guerre sale” liburua, 1990eko hamarkadan jihadistiei leporatutako zibilen sarraskietako batzuk



armadak berak egin zituela salatzten duen ezinbesteko lana.

Souaidak bezala, Tikjdako biztanle askori sortzen zaizkio kezak. Nabarmentzen dute bideoan ageri diren lagunek, Herve Gourdel belaunikatuta duten jihadistek, oso azal argia dutela, Aljerian oso arraroak diren Afganistango jantziak daramatzatela eta bakarren bat gizenegi dagoela. «Kabilian uda amaitzen denean, guztiok izaten dugu azala askoz ere ilunago, eguzkiaren eraginez. Terrorista horiek hirietakoak dira, urbanoak», adierazi zigun Aghiles eskualdeko gazte batek. Beste xehetasun susmagarri bat ere badago: bideoaren bigarren zatian zedroak ikusten dira atzealdean, Kabilian oso arraroa den zuhaitza. Beraz, beste nonbait grabatutako irudiak direla ondorioztatu behar da.

Herve Gourdel non bahitu zuten argitzeko garaian ere bertsio ezberdinak daude oraindik. «Al-Adath» arabierazko egunkariaren arabera, Gourdel eta bere lagunak jihadistek jarritako kontrol batera iritsi ziren, Tikjdara itzultzen ari zirela. «Eremu horretan ia ez da inoiz kontrol faltsurik izaten. Bahiketa ez zen kasualitate hutsa izan», dio Sofianek, Ait Ouabaneko 40 urte inguruko emakumeak, kontrola frantsesa harrapatzeko propio jarritakoa zela aditzera emanez.

IKERKETA ETA ZALANTZAK

Gourdelekin zeuden bost aljeriarrek Bouirako auzitegiko epaile baten aurrean deklaratzera joan behar izan zuten, baina aske geratu ziren, ordura arteko zurrumurruei amaiera emanez, jihadistien konplize ote ziren usate baitzuen herrialdean batek baino gehiagok.

«Bahiketa egin zuen komandoak oso informazio ona zuen: aste pare bat lehenago iritsi zen bertara, bertan prestatu zuen bahiketarako behar zuen guztia, Herve Gourdel bahitu eta berehala ihes egin zuen», esplikatu du Habib Souaidak. «Bi aukera baino ez daude: armada erabat ezgauza da edota norbaitek soldaduak mendira eramaten ziztuen besterik gabe paseatzera».

Gouri jihadistak Issers bere jaioteritik lau kilometrora zihoan Peugeot Pathner auto batean beste hiru lagunekin batera: guztiak exekutatu zituzten

Bertsio ofizialaren arabera, Herve Gourdelen gorpuzkinak armadak atxilotutako jihadistak batek emandako informazioari esker aurkitu zituzten. Bestelako argibiderik ez dute eman



Kabiliako trafiko seinaleetan amazigeraren aldeko borroka agerikoa da. Jean Sebastian MORA

Urtarrilaren 15ean, Aljeriako agintariek Herve Gourdelen gorpua eta burua aurkitu zituztela esan zuten. Gorpua, puntu batean, eta, burua, beste batean. Takheldjit inguruko mendiko baso batean omen zeuden, emandako esplikazioak oso argiak ez badira ere. Mendi gidaria bahitu zuten lekutik 60 kilometro ingurura zeuden, Iferhounenen. Bertsio ofizialaren arabera, armadak atxilotutako jihadistak batek emandako informazioari esker aurkitu zituzten gorpuzkinak, baina ustezko lekuko horren bestelako daturik ez dute eman agintariek.

Beste behin, Estatu frantseseko hedabide guztiek ontzat eman zuten informazio ofiziala, kinkan ipini gabe, nahiz eta funtsik gabeko elementu asko ageri diren. «Zein da gorpua leku batetik bestera eraman eta ezkutatzearen interes estrategikoa?», galdetzen du Lounis Aggoun kazetari eta giza eskubideen aldeko ekintzaileak. «Aljeria estatu ultrapoliziala da. Ez dago DRS zerbitzu sekretuen kontrolpetik kanpo dagoen eremurik. Nola mugitu zuten terroristek gorpua puntu batetik 60 kilometrora dagoen beste batera, 2.000 soldadu baino gehiago inguruan zituztela?».

Urtarrilaren 24an herriratu zuten Herve Gourdelen gorpua. Parisko Fiskaltzako Terrorismoaren Aurkako Dibisioak autopisia egin du. Oraindik ez dira emaitzak ezagutzera eman, baina ikerketa ezagutzen duten iturriek esan dute kasu nahasia dela, Thibbirineko fraideen kasua gogora ekartzen duena.

ESTATUA ETA KABILIA

«Hamarkada beltza» bete-betean zela, herritar askok pentsatzen zuten Aljeriako Armadak eremu jakin batzuk propio uzten zituela «zaintzatik kanpo». 1997an, Aljeria diplomatikoki baztertuta geratu zen nazioartean, zantzaz betetako erasoetan zibilak eta herri osoak sarraskituak izan ondoren. Kasu askotan jihadistien erantzukizuna frogatuta dagoela ukatu gabe, Lounis Aggounek bezala begirale askok nabarmendu zuten honakoa:

«GIA Talde Armatu Islamiarrak infiltratu asko izan zituen garai hartan, Aljeriako zerbitzu sekretuek hor ipinitako agenteak». Agente horiek manipulatu zituzten talde jihadistak, ekintza basatienak egin zitzaten, bertsio horrek aditzera ematen duenez.


Egun Bouteflikaren erregimenak abian jarritako berradiskidetze politikak Hassan Hattab GSPC Predikazio eta Borrokarako Talde Salafistaren sortzailea bezalako jihadista ezagunak aske uztea eragin du. Uneotan, gainera, «zerbitzu sekretuen laguntzailea» da, ofizialki. Eta hori ez da onartzeko modukoa, begirale askoren arabera.

Erregimenak jihadistien mehatxua astintzen jarraitzen du, terrorismoaren aurkako borrokaren aitzakiarekin nazioarteko laguntzari eusteko, eta ez negoziarik ez onurarik ez galtzeko. Aljeriak independentzia eskuratu zuenetik 50 urte pasa direnean, petrolioak eragindako irabazien banaketa gutxiengo baten mesedetan egiten da oraindik. Eta horrek ustelkeria kronikoa eragiten du. Duela aste batzuk ezagutzero eman da Aljeriako 400 bezero inguruk zituztela kontuak HSBC banku britainiarrak Suitzan duen egoitzan.

Aljeriako eliteak bere posizioari eusten ondo asko dakiela askotan erakutsi izan du. Arabiar Udaberria lehertu zenean ere (Tunisiako iraultzak arabiar herrialde guztietan eragindako mobilizazio prozesua), Aljerian ia ez zen manifestaziorik izan. «Erregimenaren biziraupena ulertu ahal izateko kontuan hartu behar da edozein joeratik irabaziak ateratzeko gauza dela. Baita joera horiek menderatzeko gai ere», adierazi du Mendhi Lazar Pantheon Sorbonne Unibertsitateko katedradunak.

2011ko abenduaren 6an Aljeriako Batzar Nazionalak onartu zuen Alderdi Politikoen Legeak berak ere, ofizialki FIS Fronte Islamiarra hauteskundeetara aurkeztu ez zedin egindakoa, egoera politikoa bere kontrolpean edukitzen lagundu zion erregimenari. Orain, berriz, «Herve Gourdelen heriotza dela-eta, 1990eko hamarkadaz geroztik,

Bahiketa susmagarria



eta gehiago oraindik 2001eko irailaren 11ko erasoen ondoren, horrenbesteko arrakasta izan duen kontua atera du berriz ere erregimenak mahai gainera: Mendebaldea ‘islamiar barbaroen hordetatik’ babestuko duen ezkutu izan nahi du», Hocine Maltik egiten duen irakurketaren arabera.

KABILIAREN DEMONIZAZIOA

2002ko otsailean, “Liberte” egunkariak Ahmed Merah jihadista ohiaren artikulua aparta argitaratu zuen. Aljeriako zerbitzu sekretuetako agente bihurtutako jihadistak orduan idatzi zuten, «Kabilia herrialdeko botere klanen arteko gerra eremu bihurtuta dago». Handik astebe-tera, pozoituta hil zuten Merah.

Herve Gourdel bahitu zutenean, “El Watan” egunkariak ez zuen uste Kabilia «terroristen

«Makina bat gerrillari atxilotu izan ditugu, baina bideoan burua mozten ageri diren horiek ez dute mendian ezkutuka ibili eta kobazulotan babesten diren gerrillarien tankerarik»

Bideoan ageri diren eta Gourdel belaunikatuta duten jihadistek oso azal argia dute, Aljerian oso arraroak diren Afganistango jantziak daramatzate eta bakarren bat gizenegi dago

gotorleku» bihurtuta zegoenik, «bertan, ideologikoki, herritar-
rak erabat kontrakoak baitira».

Ez da ahaztu behar eskualde horretan amazigera dela ama hizkuntza bertako 6,5 milioi lagunentzat, gehien-gehienentzat bederen. Eta ez dutela onartzen «Aljeriaren batasun nazionalaren oinarriak balore arabiarrek eta musulmanak izatea». Horrexegatik kabiliarrak beti izan dira fundamentalisten eta jihadist-
ten aurkakoak.

Gaur egun ikusten ditugun makina bat faktorek aditzera ematen dute erregimenaren maniobrak daudela Kabilian gertatzen ari denaren atzean. Amazigh mugimendua kaltetu eta ahulduko lukeen intentsitate baxuko gatazka armatu bat eragiteko gauza izan ez denez, aginteak Kabilian kanpoko jihadistak elkar daitezen baldintzak sortu ditu. «Aljeriak ekonomiko-
koki baztertu egin zuen Kabilia eta bere irudia zikindu baino ez du nahi», salatu du Kamira Ait Sid feministak, MAK Kabiliako autonomiaren aldeko mugimenduko kideak.

Kabilia baztertu nahi izana aspaldiko kontua da. Pentsa, kolonizazioaren aurretik nortasun nazionalik ez zegoenez, “Aljeria” kontzeptua bera frantses kolonizatzaileek asmatutakoa da. 1962an Aljeriako nazioa definitu

zutenean elementu frankofono eta judu guzti-guztiak ezabatu egin zituzten, baita amazigh nortasuna bera ere, arabiar eta musulman elementuak nabarmentzeko. Hori dela eta, 1980an Amazigh Udaberria lehertu zen. Aljerrek herrialdearen batasuna suntsitzea leporatu zion herritarren mugimenduari eta oso gogor erreprimitu zuen. Baina askatasun gosea areagotzea baino ez zuen lortu erregimenak. 1998an Matoub Lounes abeslaria hil zutenean, eta, batez ere, Kabilian 2001ean izan ziren borroken ondoren (apiriletik ekainera bitartean 100 hildakotik gora izan ziren), herritarren mobilizazioak indartu egin ziren. 2001eko ekainaren 14an, milioi bat amazigh inguruk Aljerreko kaleetan protesta egin zuten, demokrazia exijitzeko, Poliziaren indarkeria salatzeko eta hizkuntza aniztasunaren errespetua aldarrikatzeko.

Baina herriak eskatutakoa bete beharrean, Estatuak Kabilian zituen segurtasun indar guztiak atera egin zituen bertatik, eta ekonomikoki erabat baztertu egin zuen eskualdea. Emaitza da gaur egun dugun egoera: datu ofizialen arabera, eskualdea AQ-MI Magreb Islamiarreko Al-Qaeda erakundearen babesleku bihurtu da eta bertan 80 pertsona bahitu dituzte 2005az geroztik. Eta oso zabaldua dagoen ustearen kontra, Pirinioen garaierarik ez duten mendi horietan dozenaka errepide egin dira 1962az geroztik: Kabilia ez da gaur egun independentziaren gerra garaian zen leku erabat isolatu hura.

PARISI ABISUA?

Ulertzekoa da frantses Estatuko hedabideek Aljerren diskurtso ofiziala besterik gabe eskaintzea, horrela komeni zaielako. Baina ulertezina da Gobernuak eta bere zerbitzu sekretuek Herve Gourdelen bahiketa eta hilketan helburu politikoak zituen talde jihadistien infiltrazioa egon zitekeela ez pentsatzea, burutik ere ez pasatzea.

Frogatuta dago frantses Estatuko agintari politikoek 1994az geroztik bazekitela GIA erakun-

de armatua Aljeriako zerbitzu sekretuek infiltratuta zutela. Eta horrela izaten jarraitu zuela 1995eko Parisko RER tren gelto-kiaren aurkako atentatuaren ondoren ere (zortzi pertsona hil ziren GIAk bere gain hartutako eraso hartan).

Zergatik, edo zertarako, hil du-
te orduan jihadistek mendi gi-
daria? Begirale batzuek aipatzen
dute Marc Trevidic epaileak Al-
jer hiriburura 2014ko urrian
egin behar zuen bisita. Tibhiri-
nen 1996an hil zituzten zazpi
fraide frantsesen buruhezurrak
aztertzeraz joan behar zuen Tre-
vidicek, eta, irakurketa horren
arabera, hiltzaileek epailea bel-
durtu nahi zuten.

Beste begirale batzuek gogora
ekartzen dituzte Aljeriak nazio-
artean izan dituen presioak, Ma-
grebeko herrialde hau baita Li-
biara soldaduak bidaltzeko
aukera erabat baztertzeko
bakarra. Baina aurreko hipote-
siarekin gertatzen den moduan,
ez daukagu hori egiaztatzerik,
iturri zuzenik gabe.

Gauza bat oso argi ikusten da.
Aljeriako erregimenaren ba-
rruan botere borroka bat dago
gaur egun; alde batetik, armada
eta, bestetik, DRS zerbitzu sekre-
tuen buruak. Petrolioaren sal-
neurriak behera egin duenez,
horien artean banatu beharreko
pastela txikiagoa da, guztien
kaltetan.

**Bideoaren bigarren zatian zedroak ikusten dira
atzeko aldean, Kabilian oso arraroa den
zuhaitza. Beraz, beste nonbait grabatutako
irudiak direla ondorioztatu behar da**

**«Bahiketa egin zuen komandoak informazio
oso ona zuen: bi aste lehenago iritsi zen
bertara, behar zuen guztia prestatu zuen, Herve
Gourdel bahitu eta berehala ihes egin zuen»**

Aljeria «sistema politiko mili-
tarizatua da», Majid Benchikh
jurista eta Amnesty Internatio-
nal erakundeko ordezkariaren
arabera. Herrialdeak indepen-
dentzia eskuratu zuenetik, Alje-
riako agintea beti egon da arma-
daren eskuetan. Militarrek
Estatuaren instituzio guztiak
gainbegiratzen dituzte. Hautes-
kundeetan «aukeratuak» izan
diren presidentek beti egin
izan dute militarren boterea
murrizteko ahaleginen bat. Ho-
rrela egin zuen 1992an hil zuten
Mohamed Boudiafek ere.

Baina egun hiltzen ari dira
FLN Nazio Askapenerako Fron-
teko 1962ko belaunaldiko kide-
ak. 2013ko urtarrilean, In Ame-
nasko sarraskiaren ondoren (37
bahitu izan ziren 29 jihadista hil
ziren erasoan), zenbait jeneral
garaia baino lehenago erretiratu
egin zituzten. Hori izan zen po-
rrotari emandako erantzuna.

LABANKADAK JAUREGIAN

Geroztik Chakib Khelil Energia
ministro ohia ustelkeria eskand-
alu batean nahastuta dabil. Be-
re aurkako nazioarteko atxilo-
ta agindu bat indarrean dago.
Bouteflika presidentearen on-
dokoa izanik Khelil, jazarpenak
aditzera ematen du gobernuki-
deen arteko gatazka bat dagoela
atzean.

Benjamin Stora historialaria-
ren ustez, «sistemaren bizkarre-
zurra den hierarkia militarren
ordezkaririk gorenari Mohamed
Lamine Mediene *Toufik* jenerala
da, 1990eko irailaz geroztik
ukiezina zena. Baina joan den
otsailaren 3an, aurrekaririk ez
duen agerraldi batean, Amar Sa-
adani FLNko idazkari nagusiak
oso gogor hitz egin zuen Toufi-
ken aurka. Egun batzuk geroago,
Toufiken senide den Abdelkader
Ait Ourabi *Hacene* DRS zerbitzu
sekretoetako jenerala erretiratu
egin zuten, epailearen aurrera
eraman aurretik».

Agintarien adierazpenen atze-
tik Bouteflikaren ondokoen ma-
niobrak sumatzen dira, Parisen
sostengua duten mugimen-
duak. Testuinguru horretan bai-
no ezin dira ulertu Herve Gour-
delen bahiketa eta hilketa
ahalbidetu dituzten baldintzak.



Thaletat mendia, Djurdjura mendikateko tontorretako bat. GAUR8

FREETOWN SIERRA LEONA


Ondokoa ukitzerik ez dagoen hiria

 **JENDARTEA /** Killan FORDE

Ebola izurritearen aurkako borrokan kontaktu fisikoa murriztea erabaki dute Sierra Leonan. Ez dago debeku zehatzik, baina elkarren arteko harremanetan sekulako eragina izan du erabakiak. Afrikako herrialdeak ebola gaitzaren aurka erakutsi duen antolakuntza eta teknologia ahalmenaren beste adibide bat da autozentsurarena.

Inork ez du debekatu, presidentearen dekretu batek ere ez, baina kontaktu fisikoa desagertu egin da Freetown Sierra Leonako hiriburuan. Debekua ezartzeko beharrik ere ez da izan. Poliziak, Armadak eta miliziek ez dute arduratu beharrik elkar ukitzeko debe-

kua betearazteko, izan ere, Freetownen, eskuak elkar hartuta paseatzen baduzu, arrotzat edo egoistatzat joko zaituzte, edo, agian okerrago, kutsatzailatzat. Saia zaitez zu zeu gaur. Saiatu egun osoa igarotzen inor ukitu gabe. Ez iezaiozu inori eskua eman, lagunaren besarkada goxoari ezetz esan. Beste pertsona



Esperantza ez dute galdu Freetown Sierra Leonako hiriburuko biztanleek. Elkarren arteko harremanekin gertatzen den bezala, izan ditzaketen beldurrak etxean uzten dituzte, ate itxiaren bestaldean. Francisco LEONG | AFP




bati kalean helbide bat azaltzen diozunean, ekidin nahigabe edo argibideak ematerakoan sor daitekeen kontaktu oro.

Ebola izurritearen aurkako borrokan kontaktu fisikoak ahalik eta gehien murriztea erabaki dute Sierra Leonan, eta, horrek, noski, elkarren arteko harremanetan sekulako eragina izan du. Harremanak etxeetara, eremu pribatura, mugatu dira. Jendeak ateak ixten ditu badaezpada, xaxatzeko edota marmarrean aritzeko prest dauden begietatik salbu.

ESFORTZU IZUGARRIA

Sierra Leonak ebola gaitzaren aurka erakutsi duen antolakuntza eta teknologia ahalmena izugarria izan da. 2013an, ebola izurritearen aurretik, sei ambulanzia ziztrin eta zaharkitu baino ez zeuden herrialde osoan. Azken zenbaketen arabera, berri, ehunka dira uneotan ambulantiak. Era berean, herrialdean ez zegoen ia azpiegiturarik, eta, zeudenak, zaharkituta eta zatika erortzen ari ziren. Gaur egun, herrialdeak munduko ospitalerik berrituenak ditu. Men-



debaldean ditugun ospitaleen antzerakoak.

Helikopteroek gau eta egunez zeharkatzen dute Freetown hiria, emergentziazko ekipoak eta pazienteak garraiatuz. Bazter guztietan topa dezakezu Poliziaren edota Armadaren kontrol bat. Gaitzaren lehen sintomak ahal bezain azkar atzeman ahal izateko kalentura hartzen diote jendeari. Setiatutako hiria da Freetown, gerran dagoena. Lehen lerroan milioika pertsona dituen gerra. “Herritarren Armada” honek, baina, ez du armarik, soilik termometroak, ura, kloroa, autozentsura eta probak behin eta berriz errepikatzeke determinazioa. Elkarlana eta kontu handia krisi bortitzari aurre egiteko.

Hala ere, esperantza ez dute galdu Freetowneko biztanleek. Elkarren arteko harremanekin gertatzen den bezala, izan ditzaketen beldurrak etxean uzten dituzte, ate itxiaren bestaldean. Argi dute gaitza bertan dutela eta ez diote egoerari buelta handirik ematen. Horrela, bada, diziiplina osoa erakusten dute, jarrera baikorrarekin

eta etengabeko konpromisoarekin batera, beste edozein erabat gogaituko lukeen konpromisoa.

Albert Camusek bere “Izurria” eleberri alegorikoan idatzi zuen moduan, «aukerarik txikiena sortu zen momentuan amaitu zen izurritearen agintea». Esperantza berari jarraituz, gerra honen emaitzarik seguruena ebolaren porrota izango da.

Edozein egunetan elkarlan betean ikus ditzakegu Sierra Leonako erizainak, mediku kubararak, britainiar soldaduak, Txinako Armadako talde medikuak, herrietako agintari tribalak, Kenyatik etorritako epidemiologoak, Ameriketako Estatu Batuetako birologia adituak eta, oro har, Nazio Batuetako Erakundearen agentzia desberdinetako langileak.

Ebola garaitua izango da azkenean, baina izurriteak larri zauritutako herrialdea utziko du atzean. Ikasturte osoa galdu dute haurrek, eskolak itxi egin baitzituzten gaitzaren hedapena zailtzeko. Izurritearen aurretik sumatzen hasia zen garapen ekonomikoa bertan behera geratu da. Hilabeteak daramatza-

te geldirik errepide, argindar eta garraio azpiegiturak garatzeko proiektuek, eta milaka dira langabeziara kondenatutako langileak. Denda eta merkatuek ordutegi murrizketak pairatu dituzte, eta nekazariak gero eta zailago dute produktuak merkaturatzea. Auzo batzuk itxita geratzen dira berrogeialdietan, sarri leku batetik bestera joatea debekatuta dago, eta zinemak eta antzerkiak itxita daude. Horrez gain, mugak ezin dira zeharkatu, esportazioak eten egin dira, hondartzara ezin da joan, ezta parke publikoetara ere. Kirol lehiaketak bertan behera utzi dituzte eta ez dago argi

Sierra Leonak ebola gaitzari aurre egiteko erakutsi duen antolakuntza eta teknologia ahalmena izugarria izan da

Lehen lerroan milioika pertsona dituen gerra eraman dute aurrera. «Herritarren Armada» honek, baina, ez du armarik, soilik ura, kloroa, termometroak, autozentsura eta probak behin eta berriz errepikatzeke determinazio handia

noiz itzuliko diren. Gazteen lokalak hutsik daude eta iluntzen hasten denerako ez da inon taxirik ikusten. Herrialdea geratu egin da guztiz.

Adituek ohartarazi zutena gertatu da, 37 urteen ondoren ebola gaitza hirietara iritsiko zela aurreratu baitzuten. Arrazoia zuten. Baina bigarren iragarpenean kale egin dute behintzat. Izan ere, ebolaren aurkako kanpaina mundu osora hedatu beharko zela ohartarazi zuten. Ez da, zorionez, hori gertatu. Eman dira kasu bakartuak Estatu espainolean, AEBetan eta Britainia Handian, baina Sierra Leonako biztanleak izan dira gaitz izugarri honen hedapena gelditu dutenak, hori bai, Nazioarteko Komunitatearen laguntzarekin. Eta ez bakarrik Freetown, mundu osoa libratu dute izurritetik.

GARAIPENA

Komunikazio estrategietan adituek badute non ikasi. Ebolaren aurkako marketin kanpaina leku denetara eta une oro iritsi da, jendeari ohiturak aldaraziz eta horrela gaitzaren transmisioa ekiditea bideragarri eginez. Asko ziren asmo horrek porrot egingo zuela aurreratu zutenak, baina hasiera-hasieratik argi zegoen funtzionatuko zuela, baldin eta agintari politikoek, lidergoa erakutsiz, lasaitasuna mantentzen bazuten zibilen eta medikuen laguntzarekin. Eta noski, beharrezko baliabideak eskaintzen bazituzten edonon eta edonoiz azaleratzen ziren ebola agerraldiei aurre egiteko.

Ez da izan Sierra Leonakoa osasun publikoaren aldeko kanpaina erraldoi bakarria historian zehar. XIX. mendean malaria izurrite izugarria gainditu zuten Habana Kubako hiriburuan eta XX. mendean hastapenetan sukar horia desagerraraztea lortu zuten. Hori bai, ebola izurritearen aurkako kanpaina honek zerbait erakutsi badu, honakoa da: agintariak horrelako egoera larri baten aurrean estrategia zuzena badute, emaitza izugarriak lor daitezke, 6 milioi pertsona proiektu komun batean murgilduz.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

«Hazi arazi»

Go for Growth» leloa ez da berria merkatu librearen zaleen artean: Erresuma Batuko «toryek» erabili zuten 1962an, eta Australiako Alderdi Liberalekoek 2007an. OECD neoliberalak, halaber, «Going for Growth» deitu dio estatuei murrizketagomendioak egiteko erabiltzen duen argitalpen nagusiari. EAJ ere «hazi arazi» leloa erabiltzen ari da azken boladan. Lelo bitxi bezain argigarria. Beste hainbat kalifikatzaileekin batera: burugogorra, krisi ekonomikoa ekarri digun eten gabeko hazkundearen mito ezinezkoarengan berriro ere erakusten duen fede zentzugabea dela eta; arduragabea, fisiko ki ezinezkoa den hazkunde-mito hori mundu-ekosistema gero eta azkarrago deuseztatzen ari delako, Euskal Herrikoa barne; eta, harrigarriki autosalatzailea, azken asteotan mahaigaineratzen ari diren ustelkeria kasuen atzean (EAEko geografia goitik behera kubritzen dutenak: Alonsotegi, Sestao, Getaria, Irun, Maltzaga-Urbina, Miñao, Gasteiz, Zabrana...) filosofia kontziente oso bat dagoela argi erakusten duelako.

Zanbranako kasuak, hain zuzen, ezin hobeki adierazten du politika ulertzeko modu ekonomizista bezain suizida hori, lurraldea ekonomiaren hazkunde ustez amaigabea lortzeko tresna huts gisa ulertzen duena. Gainera, berritasun bat ekarri du hirigintza ustelkeriaren mundu zabalegira: etxebizitza-lurzoruan gertatu ordez, ia beti bezala, industria-lurzoruan jazo baita. Inputatuta dauden delitu mordoen egiazkotasuna gorabehera (bitxia da, dena den, defentsaren ildoak, erabat teknikoa eta errua ukatu gabe), oso-oso eztabaidagarria da Araba, eta, hedaduraz, Euskal Herri osoa, modu horretan «hazi arazi» beharra: udalerrian 66 industria-hektarea berri kalifikatzeko Ordezko Arauak 2008an aldatzen saiatu, baita tokiko administrazioaren iritzia-aren kontra ere; astakeria horrek lurralde-mailan arau-justifikazioa izateko Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala aldatzen saiatu, bide batez industria-azalera 160 hektareara zabalduz; EAEko Lurraldea Antolatzeke Batzordean presio politikoa egin (Batzordearen historiako lehen bozketa eraginez, Arabari dagokionez); epe motzeko mozkin eskuratzen saiatu, operazio urbanistikoak ziklo konbinatuko zentral termiko berri eta kutsakor baten irekiera ekarri arren...

«Hazi arazi» ez baita 2015eko hauteskundeetarako lelo soil bat. Jule Goikoetxeak berriki azaldutako «hiritarkeria» liberalaren doktrina urbanistikoaren *leitmotiv* garapenezalea da, hirigintza-birkalifikazioek magikoki sortutako gainbalioen gorpila berriro ere martxan jartzea desio duena. Ikuspegi horrentzat hiria ez da soilik metafora bat, errealitate bihurtzeko bidean den «Euskal Hiria» distopiarekin erakutsi bezala. Logika hazkundezale horrentzat herri-aberastasuna hormigoi kopuruaren arabera neurtzen da (akaso horregatik ez zaio gehiegi axola zer gertatu den 900.000 metro kubiko lurrekin). Jarduteko era horrek eufemismo teknizistak eta ustez sofistikatuak ditu gustuko, «Berrikuntzaren Arkua» (Zanbranako birkalifikazio demasekoa intelektualki babesten saiatu zena), «Pasaiaiko Ekoportua» (naturgune babestu bat *ekohormigonatzea* justifikatu nahi zuena) eta «Bilbao Bizkaia Next» (Castrotik Debarainoko 1,5 milioi biztanleko hiri jarraitu bat guztiz urbanizatzea bilatzen duena) hutsalen bezain arriskutsuen tankerakoak. Andoni Olariagak 2010ean salatutako «munduko hiritarren» unibertsalismoaren abstraktutasuna soilik itxurakoa baita: hormigoia ez da entelekia bat. Konkretua da. Diru-papera adina.

Hau ez da alor ekonomikoa (ber)piztearen aurkako aldarri erreakzionario bat, ordea. Oroigarri bat besterik ez; gogorazteko haztea, berez, ez dela helburua; herritarren behar oinarritzako asetzea dela benetako jomuga. Ez soilik elite sozioekonomikoan dauden gutxi batzuen. Batzuk, gutxienez, horretan saiatzen ari dira. (H)ari gara. •



Ilustrazioa: Unai FERNANDEZ DE BETOÑO

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Bruselan bada, Baionan bada, Parisen bada...

Zerrenda ikusgarria bildu du Bruselan astear-
tean iragarritako ekimenak, “*Free Arnaldo Otegi, bring basque political prisoners home*”
lelopean. Hain ikusgarria ezen Madrildik ez-
ikusiarrena egitea erabaki duten beste behin;
antza, oraingoan ez dute aurkitu giza talde
txundigarri hori zikintzeko modurik. Bertan daude bai
izenak bai barruan dakartzaten istorioak, borrokak, lor-
penak eta ospeak, ikusi nahi dituenarentzat: Pepe Muji-
ca, Desmond Tutu, Ken Livingstone, Gerry Adams, Ange-
la Davis, Slavoz Zizek, Cuauhtemoc Cardenas, Manuel
Zelaya, Fernando Lugo... Bruselatik ostrukarena ezin egin
eta argudio honekin gutxietsi nahi izan du Maite Paga-
zaurtunduak: garrantzirik ez du izango, Otegik zigorra
betetzear du eta. Urtebete gehiago giltzapean izango
omen dute, ordea, hau da, sei urte eta erdiko zigorreko
azken eguna agortu arte. Eta 450 euskal preso daude
oraindik, giltzapean ez ezik, sakabanaturik, eskubiderik
gabe, zigorrak amaieraraino irentsiz (tranpa zikinen bi-
dez luzatzen ez zaizkienean). Lehenago etor zitekeen eki-
mena, jakina, baina hobe be-
randu inoiz ez baino: tama-
lez, oraindik ere badu bidea.

Ez da erraza honelako atxi-
kimendu potenteak biltzea. Izan ere, batzuei urruti, oso
urruti, geratzen zaie indige-
nez beteriko Europako txoko
galdu hau: demagun, Davis,
Kathrada edota Tuturi. Beste
batzuentzat ez zen samurra izango “*madre patria*” betie-
rekoari iskin egitea: Lugo eta Zelayari, esaterako (ze de-
montre, ez al zion Juan Carlos Borboikoari bostekoa
eman Mujicak berak Montevideon, ez dakit samurtasu-
nez ala batere gogorik gabe, duela hiru aste eskas?). Eta
Mendebaldera begiratzen badugu, ustekabe pozgarria da
Londresko aurreko alkateak edota Europako pentsalari
ospetsuenetarikoak Euskal Herria kezka iturri dutela
ikustea. Brian Currinek GARari emandako elkarriketan
egindako hausnarketa erabiliz, anglosaxoiak eta latinoak
daude zerrendan, pragmatikoak zein epikazaleak, buru
hotzekoak zein bihotz berokoak. Guztiek ulertu dute me-
rezi duen auzia dela eta beren ekarpentxoak egin dute.

Parisen izan liteke hurrengo urratsa. Zerbait pozgarria-
ren iragarpena bazekarren ere Currinen elkarriketak eta
“Argien Hirian” ekainerako prozesuaren aldeko ekitaldi-

ren bat prestatzen ari ote den zurrumurrua heldu da
hainbat egunkaritarara. Itxaron beharko da, baina, egingo
bada, gogora dezagun Euskal Herriatik piztutako txinpar-
tatik sortuko delaugar hori. Bruselako ekitaldiak euskal
herriarregan nazioarteko komunitatearekiko konfian-
tza biderkatzen duen bezalaxe, nazioarteko eragileek
abenduko Baionako Akordioan oinarritzen dute gugana-
ko konfiantza (ala fedea esatea hobe?). Marka izan zen
bihar bertan berriro Ipar Euskal Herriko hautestontzie-
tan lehian ibiliko diren ertz bateko eta besteko ordezkari-
ek eskuratutako kontsentsua, konponbidea helburu be-
ren sakoneko desadostasun guztiak alboratuz. Parisi dei
zuzena egin zioten, eta hor nonbait batzuen batzuk me-
zua jaso eta ozenarazteko prest omen daude.

Bruselan posible izan da, beraz, konponbidearen alde-
ko elkarlana, ezberdinen artean. Baionan ere bai, oso ez-
berdinen artean. Eta baliteke Parisen ere Estatuaren hor-

Ezberdinak eta arrotzak direnak gure alde
batu dira Bruselan; oso ezberdinak baina
gureak direnak, Baionan; Parisen ere
zeozer berri badabil. Nolatan ez Bidasoatik
behera? Noiz arte denontzat kalte?

matzarretan pitzaduraren bat gertatzea. Bidasoatik
behera, aldiz, berririk ez. Aietetik hiru urte eta erdi pasa-
ta oraindik akordiorik ez, ezinean, esku hutsik, blokeatu-
rik. EAJ eta Sortu mahai berean elkarri begira eta elkarri
ezetz esaten, urte eta erdi luzez. Gasteizko Legebiltzarre-
ko lantaldea, lanik gabe, alfer-alferrik, usteltzen hasita.
Lakua bere horretan, ezker abertzalea berean eta Iruñea
ezertan ere ez. Batek bake plan ponpoxo bezain eskasa,
besteak proposamen ezagutu gabea. Ez da normala, ezin
du izan, ez kanpora begiratuta, ez eta iraganari errepara-
tuta ere. Ez al ziren legebiltzarkideak 1996an espetxera
sartu zirenak, gatazka gordineko garaietan? Ez al zuten
elkarrekin egin espetxe politikaren aurka Lizarra-Garazi-
ko garaietan, Batera ekimenean? Eta ez al dira orain bo-
zetan indartsuago konponbidearen aldekoak eta ahulago
etsaiak? Orduan, nolatan ez? Nolatan denontzat kalte?

«BERTSONAJEA»

Mañukorta edo bertsolari ezberdin baten kasua

📁 BERTSOLARITZA / joxean.agirre@gaur8.info

Ez du inoiz Euskal Herriko finalean kantatu, baina bera izan zen 80ko hamarkadan eta 90ekoaren zati batean ere urtean saio gehien egin zituen bertsolaria. Famatuak egin ziren bere kantaera berezia, bekainen mugimendua, bere kontsonanteen ahoskera eta «errre» indartsuak, bere imintzio eta keinuak.



Famatuak egin ziren garai batean Gregorio Larrañaga *Mañukorta* bertsolariaren lapsus zenbait, gag komikoak diruditenak. «Niri gustatzen zaizkit Kubako brasileñak» esan zuen behin, edo behi eroen gaia jarri eta «hormonak» ordeztu «mormonak» bota zuen, edota «Fran-

tziako Giroa» izan zuen hizpide hurrengoan. Gautiarra eta parrandazalea izan da, baina neurrian. Tonto plantak egiten ditu, baina azkarra da eta kalkulatzaileria. Berezia eta ezberdina da, kasu bat, eta kasu hori aztertzen saiatu da Xabier Amuriza “Mañukorta, bertsónajea” liburuan. Bertsolaritza erabat kaletartu eta euskaldun berrien ondare

Goiko irudian, Gregorio Larrañaga «Mañukorta» eta Xabier Amuriza elkarrekin. Konplizitate handia daukate eta «Mañukorta, bertsónajea» liburua egiteko ordu asko eman dituzte elkarrekin. Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

izaten hasi zen garaian, 80ko boom famatua bete-betea zegoenean, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko mugan jaiotako bertsolari menditar bat agertu zen zaleak eta ez zirenak ere txunditu zituen. Arrakasta horren arrazoiak argitzen saiatu da Xabier Amuriza aipatutako liburuan. Liburuaren amaieran mahai inguru bi datoz eta horietako

batean Fredi Paiak kontatzen du Algortako Portu Zaharreko festetan erdaldunek ere galdetu egiten zutela ea Mañukorta kantatzen bazetorren. «Alde bate-tik, uste dut, Algortan konpo-nente rurala baloratzen dela. Euskaldun berriok batez ere, euskara non gorde den, nondik datorren. Gero, entzuleei itxura fisikoa ere bitxi egiten zaie. Bere

Famatuak dira bere lapsus zenbait, gag komikoak diruditenak. «Niri gustatzen zaizkit Kubako brasileñak» esan zuen behin, edo «Frantziako Giroa» izan zuen hizpide hurrena

«Dena du ezberdina, gorpuzkera, keinuak, kantatzeko modua, arrazoitzekoa, pertsonaia bat da. Eta enteratzen zarenean ez duela ia-ia eskolarik, are harrigarriagoa egiten zaizu»

kantaera, imintzioak, mugimendu gestualak, begiak, Mañuk bistara deitzen du», dio, eta aurreraxeago kontatzen du badela Algortan Traganarru izeneko taberna bat, eta, Mañukortak, gaizki ulertuta, behin Narruzulo deitu ziola eta geroztik bolada batez gazteen artean Narruzulo deitu ziotela taberna horri.

Baina Xabier Amurizak garbi dauka ez dela euskaldun berri eta kaletarren arteko kontua bakarrik. «Arrakasta bera zuen euskaldun zaharren artean ere. Edozein lekutan ikusi eta gogoan gelditzen den bertsolaria da. Dena du ezberdina, gorpuzkera, keinuak, kantatzeko modua, arrazoitzeko modua, pertsonaia bat da. Gero badu legenda bat ere, enteratzen zarenean ez duela ia-ia eskolarik, ozta-ozta irakurtzen duela edo irakurtzen badakiela baina ez duela bat ere irakurtzen, oraindik ere harrigarriagoa egin zaizu. Liburuko mahai inguruetako batean auzoko emakume batek, Mari Tere Sarasuak, esaten du hori, harritzekoa dela zer-nolako konfiantzarekin ibili den munduan zehar, Jainkomendin balebil bezala, hain eskola gutxi izanda».

Mahai inguru horietako batean beste batek dio bertsolari integrala dela, norabait doalarik, ez dela saioarekin konformatzen, aurretik joaten dela, jendearekin biltzen egon eta eguna pasatzen duela doan lekura doala. «Baina hori gurpil zoro bat bezala da –erantzun digu Amurizak–. Gauza bera beste batek egiten badu, jendeak ez du estimatuko. Mañukortak karisma du, eta, gainera, eskuzabal portatzen daki eta jendeak eskertu egingo dio. Eta Mañuk badaki eskuzabal portatzen, badaki leku batera joan eta bertakoekin goiz aldera arte egoten».

Badagoela, gogoratzen diot Amurizari, jendeak bertsolariengan estimatzen duen beste ezaugarri bat, gau-txoria izatearena, jendeak parranda zaleak, *malditismo* puntua dutenak estimatzen dituela. Ez du uste Amurizak horrek ere Mañukortaren kontua argitzen duenik. «Bai, bai, dantza zalea, parranda zalea izango da, baina golfoa ez.

Edan beti neurrian egingo du, beti daki non dabilen eta une batean etxera joan behar duela iruditzen bazaio, joan egingo da, alferrik izango da gelditzeko esatea. Egia da Cikautxon lanean zebilenean lo gutxiko gau asko igaroko zituela, baina aldezturik hala kalkulatu, konplizten ere badakielako. Dautana transmititzen jakiteaz gain, konpliztaile oso ona da, jendearekikoa egiten dakiena. Bere burua sakrifikatzen badaki, baina ez du bere burua galduko».

Mañukorta definitzeko eskatu eta honela mintzatu zen Amurizari: «Nik esango nuke pertsonaia berezia eta inteligentea dela,

Mañukortak ez du sekula kantatu Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalean, eta, hala ere, 80ko eta 90eko hamarkadetakotasoi batzuetan plaza gehien egiten zituen bertsolaria izan zen. Raul BOGAJO | ARGAKI PRESS

arrazoitzen dakiena. Bere adimena eskolatu gabea da, baina bere izaeraren, bizieraren esplikazioak ematen daki eta askotan harrigarriak egiten zaizkigu; hain zuzen ere, ez direlako eskolatu baten diskurtsoaren arabekoak, baina, aldi berean, logikoak dira. Sufritu ere egin du, noski, ibilera gogor asko egin dituelako, baina Euskal Herrian urte askoan plazarik gehien egin duen bertsolaria izateak harrotasun handia eman dio eta poza. Konparazio bat egiteko, Lazkao Txikik ez zekien bere burua gobernatzen, Mañuk bai. Eta gauza bera esan daiteke bizimodu gobernatzeaz, Mañukortak fortuna txiki bat egitea lortu du bizitzan: bi pisuren jabe da, erretiro on bat dauka...».

LAPSUS FAMATUAK

Amurizari gogoratu diot bere liburuan harrigarria egin zaidala diruaren presentzia hori, zenbat

hitz egiten duen Mañukortak diruaz, nire ustetan baserriarren artean norbere egoera ekonomikoaz, berdina da ona edo txarra izan, hitz egitea gai tabua denean edo zeharka bakarrik hitz egiten denean. «Diruaz baino gehiago bizimoduaz hitz egiten du Mañukortak. Ez du sekula dirurik botatzen, gastatu bai, baina bota ez. Diru pixka bat egin du, eta eskuzabal ibilita, gainera. Badaki, auzo txiki batera joan eta antolatzaileak diruz estu dabilzala ikusten badu, gutxi ko-bratzen. Pieza guztiak oso ondo enkatatzen duten unibertso batean bizi da», dio.

Bere liburuan behin eta berriz Mañukortak pertsonaia bat egin eta hori kudeatzeko duen gaitasunaz mintzo dela gogoratu diot Amurizari. «Oholtzan dagoenean pertsonaia hori oso modu kontzientean erabiltzen du. Horretan berekoia dela esan daiteke. Bere burua bakarrik ikusten



«Oholtzan dagoenean bere pertsonaia oso modu kontzientean erabiltzen du. Horretan berekoia dela esan daiteke. Bere burua bakarrik ikusten du oholtzan dagoenean»

du oholtzan dagoenean. Baina hori egiteko konfiantza izugarria behar da. Alde horretatik oso unibertso itxia du. Jendartean dagoenean ere bera da hizketan ari dena, besteei entzuten asper-tu egiten da. Bere buruarekin ibiltzen da konforme. Lazkao Txikik ere oso gutxitan entzuten zuen. Xalbadorren aurrean zegoenean egon ohi zen entzuten, sekulako mirespena ziolako. Eta Mañukorta aurrean zuenean ere isilik egon ohi zen, beste inorekin ez. Mañukorta oso harro dago bere buruarekin. Nik ez dut beste bat ezagutzen bere buruari horrelako estimua dionik».

Ideia hori askotan errepikatzen da Amurizaren liburuan, baina pertsonaia publiko bat egi-

«Bertsolari hobeago batekin kantuan ari denean ez du pentsatuko bera ez dela inoiz maila horretara iritsiko, alderantziz baizik, horiek ez direla inoiz Mañukorta izatera iritsiko alegia»

teko gai izan diren artista eta aktore handi askok, intimitatera erretiratzeko direnean, zalantzak, tristurak eta krisialdiak dituztela gogarazten diot, pertsonaia publikoa edo umorea bera ere mo-zorro gisa erabili ohi dituztela, estalki gisa alegia. Mañukortaren pertsonaia ez al du pitzadurarik, zalantzarik, galdetu diogu liburuaren egileari. «Sortzaile handiek beti dituzte zalantzak. Alde horretatik Lazkao Txiki,

esate baterako, sortzaileagoa da, jenialtasunak zituen eta zalantzakorragoa zen. Mañukorta ere sentibera bada, baina ez da artista, ez da sortzailea, eta zalantzak mespretxatu egiten dituela esango nuke, bere pertsonaia ez du zalantzarik. Bera hain dago harro lortu duenarekin, ez diola zalantzari lekurik egiten. Sufritu bai, sufritu du, baina sufrimendua bizitzako osagarri beharrezko bezala hartu du. Bertsolari

hobeago batekin kantuan ari denean ere ez du pentsatuko bera ez dela inoiz maila horretara iritsiko, alderantziz baizik, horiek ez direla inoiz Mañukorta izatera iritsiko alegia. Bestalde, zalantzari buruzko diskurtsoak intelektualak dira, ez dira haren munduan kabitzen», erantzun du.

Entzuleoi hainbeste gustatzen zaizkigun lapsus horiei buruz galdetu diot Amurizari. «Niri gustatzen zaizkit Kubako brasileñak», esate baterako. Edo liburuan bertan, eskolako lanei buruz ari dela, «diktadurek» egiten zituztela esaten du, «diktaduek» esan beharrean. «Nahi gabeko huts egiteak dira gehienak edo denak. Gero, bera

ohartzen denean horrek grazia egiten duela, inoiz erabiliko ditut. Algortan, esate baterako, kirol portuari buruzko puntua jarri zioten, “Kirol portu berria egin da Algortan” eta berak une horretan ez daki kirol portua zer den eta “segi hortan”, erantzuten du bigarren puntuan eta “bizikletan eta pilotan” jarraituko du. Nik galdetzen diot ea ez al zekien zer zen kirol portua eta lasai erantzuten du ezetz, berak mendiko kirolen inguruan galdetu ziotela uste zuela. Gure amak ere esaten ziotuen horrelakoak. Telebistan eguraldiaz ari zirela, ‘nueve sal-tos’ esan zuela kontatzen zigun, ‘nubes altas’ esan zutenean», dio Amurizak.

GREGORIO LARRAÑAGA «MAÑUKORTA»

BERTSOLARIA

«Nik tonto aurpegia izango dut, baina tontotik ez daukat ezer»

Etxean, Mañukortan, baditu liburuaren bizpahiru ale, baina oraindik kaxatik atera gabe. Berak ez du irakurtzen eta ez du liburua irakurtzeko asmorik, baina harro dago, bere lekukotasun idatzi bat uzten duelako eta Amurizak idatzi diolako ere bai. Irakurri dutenek komentario onak egin dizkiote.

Liburua nondik nora doan jendeak jakin dezan, galdera batzuk egingo dizkizut, gehienak Amurizak liburuan egindakoak. Non dago Mañukorta eta zenbat zineten etxean?

Ni non jaio nintzen tontorik handienak ere badaki: 1943an jaio nintzen Markinako Jainkomendi auzoko Mañukorta baserrian. Mañukortatik Mutrikura ordu eta erdiko bidea dago oinez, Elgoibarrera beste hainbeste, Mendarora ordu eta laurden eta Markinara bi ordu eta gehiago. Orain ordu erdi batean iristen gara herri horietara autoan. Denetara daude ibiltzeko moduko errepideak.

Zuk liburuan kontatzen duzu amama nola joaten zen astoarekin Mutrikura



larunbatetan eta Elgoibarrera ostegunetan. Mutrikura astoaren gainean bi zakukada ikatz eramaten zituela ere esaten duzu, saltzeko beste gauza gehiagorekin batean.

Ondarroaraino ere iristen omen zen astoarekin eta behin bueltan etxera zetorrela haur-minetan hasi eta umea izan zuen bidean zegoen baserri batean.

Zenbat lagun biltzen zineten Mañukortan mahaiaren bueltan?
Gurasoak, aitona-amonak, osaba eta bost senide ginen. Hamar lagun biltzen ginen galdaratik jateko.

Zuk aitonarekin harreman estua izan zenuen. Lo ere ohe berean egiten zenuten. Kontalari ona omen zen. Baina bertsoarena amonarengandik datorkizula dirudi.

Oso harreman ona izan nuen. Hitz egitean oso ona zen. Baina, esan duzuna egia izan daiteke. Amonaren anaiak, Argentinara joan zirenak, bertsotan aritzen zirenak ziren eta amaren anaiak ere koplari ibiltzen ziren. Anaia gazteak ere, Julian Larrañagak, nirekin

Badaude bertsolari batzuk, gazteak bereziki, Mañurekin bertsotan ari direnean erasora joaten direnak, atakutzen hasten direnak eta horixe da Mañukortari gehien komeni zaiona, bera hazi egiten delako eta gailen jartzen delako. «Entzuleek ere ez dute Mañukorta azpian ikusi nahi, eta, norbaitek apaltzea lortuko balu ere, Mañuri jo ko diote txalo», dio.

KAZETARI LANA

Amurizari esan diot liburuan harritu nauena bere kazetari grina izan dela, elkarrizketa luze horietan gazte baten suhertasuna nabari baitzaio galderak egiteko orduan. «Mañukorta ezagutzen nuen eta galderak



Mañukorta 1997ko Txapelketa Nagusiko finalaurreko batean, Ondarroan. Jagoba MANTEROLA | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Mañukortan bizi denak, egiten du bertsotan eta txapelketan zerbait ibilitakoa da. Gaur ere egiten du bertsotan, baina berak nahi duenean bakarrik.

Eskolara joan-etorri batzuk egin zenituen 7 urtetik 14 urtera, eta, 14 urterekin, lanean hasi zinen.

Lanean 6 urterekin hasita nengoan ardiekin aitari laguntzen, baina soldata irabazten 14 urterekin hasi nintzen, basoan pinua bota, garbitu eta pinua sartzen. Karlos Zubikarai zen nagusia. Hura ere bertsozalea zen eta bertsotan egiten zuena. Egunean 100 pezeta ordaintzen zizkidan. Ordurako jornal handia zen. Bi nagusi eta ni morroi ibiltzen ginen lanean.

Deigarria egin zait zein goiz hasi zinen erromerietara joaten, 15 urterekin.

Igandetan joaten ginen Isasin, Gorostolatik Olatzera bidean zegoen baserri batean, egiten zen erromeriara, eta han ikasi nuen dantzan. Dantzan belarri onekoa izan naiz. Orain nekatu egin naiz, baina jarraitzen dut dantza egiten. Etxekoek jotzen zuten soinua erromeria horretan.

Liburuan diozunez, handik bueltan pisu bat erosteko asmoarekin joan zinen Ameriketara, soldadutza bukatu zenuenean. Ezkontzeko asmoak al zenituen?

Sekula ez dut izan ezkontzeko asmorik. Ezkondata ondo bizitzea zaila ikusten

nuen ordurako. Ia sei urte egin nituen han eta ondoren hemen hasi nintzen lanean. Bi pisu ditut neureak. Bat alokatuta daukat Elgoibarren eta bigarrena, Markinan, hutsik daukat, karneta kendu edo zerbait gertatuko balitzait, neu bizitzen jartzeko. Oraingoz anaia gazteak eta biok Mañukorta baserria erosi genuen orain 27 urte eta han bizi gara. Lehen maizterrak ginen. Sukaldean obra egin genuen eta teilatu berria jarri genion eta ondo dago. Beste zati batzuk zaharrak ditu. Eta garbia dagoenik ere ez dizut esango, hauts pixka bat egongo da. Hogeia bat behi buru ditugu haragitakoak eta ardi batzuk ere bai, gizakiak baino listoagoak direnak. Gaur bertan ere kasua ikusi dut: anaia operatuta dabil eta neu nabil etxeko lanak egiten. Jaiki, kafesnea hartu dut gailera batzuekin eta behietara buelta bat egin dut, eta bat ikusi dut lastoa jan gabe eta marrua triste bi egin dizkit. Hasi naiz begira eta ohartu naiz bat ere urik gabe zegoela. Askara ura bota diodanean hark hartu duen poza! Ganadua anaiarena da. Nik ez dut ezer baserrian.

Ameriketako bertso giroaz ari zarela, Lopategiren anaia bat agertzen da. Han bizi da?

Bai. Joan aurretik ezagutzen nuen eta bere emaztea ere bai. Astero irratsaio bat egiten zuen hemengo berriekin.

Urte batean 200 saio egin zenituela esaten duzu liburuan. Posible al da hori?

Urte batean 200 egin nituen, baina gogorik gabe kantatzera iritsi nintzen, lanean ere ez nintzen portatu eta horrela ezin nuela jarraitu erabaki nuen. Karga gehiegi da hori. Gero urteak eman nituen 150 saiorekin eta hori ere gehiegi da. Ondo eta gustura ibiltzeko nahikoa dira 60 bat saio. Lopategik 89an irabazi zuen txapela eta garai horretan ibili nintzen asko. Pare bat ordu kotxean lo egin eta lanera joaten nintzen askotan eta hori gogorra da. Nire loteriarik handiena 57 urterekin erretiroa hartzeko zoria izatea izan zen, Cikautxon 35 urte egin eta gero.

Liburuan diozu lana uzteko tentazioa ere izan zenuela.

Telebistako saio batzuetan agertzen hasi nintzenean izan zen, baina Joxe Lizasok behin esan zidan horrelakorik ez egiteko, uzteko telebistak eta uzteko nahi banuen bertso saioak ere, baina lana ez uzteko eta kasu egin nion.

Mañukortan nola bizi zareten jakiteko, liburuan diozu anaiak dakiela sukaldean gehienbat.

Neuk ere badakit. Jaten oso onak gara biok eta denetik jaten dugu. Nik egiten ditut errekaduak eta etxeko bildotsak eta ardiak ere jaten ditugu, arraina, txuletak eta eltzekoa asko. Eta nik ikasi dudana gauza bat ona da: nahikoa jandakoan koilara mahaian uzten ikasi dut. Mañukortan nik ura bakarrik edaten dut, gero afaltzera kanpora joaten naizelako. Eguna izendatuta

egiteko orduan nondik jo bane-kien eta konfiantza ere bage-nuen elkarren artean. Bere erantzunetan bere hizketa mol-dea errespetatzen ere saiatu naiz, bere aditz elipsiak esate baterako. Arazoetako bat hiz-kuntza erregistroena izan da. Batuan egin genezakeen, berak onartuko zuen, baina kontake-ta batuan egitea erabaki nuen eta elkarrizketa, berriz, nire galderak bizkaiera jasoan eta bere erantzunak bertako az-pieuskalkian, nahiz eta zerbait garbitu behar izan dudana. Ma-ñukortaren erantzunak batuan jartzea murriztailea zela irudi-tzen zitzaidan eta hiru erregis-tro erabili izana askok eskertu didate. Pare bat edo hiru ordu-

dauzkat: egun batzuetan Elgoibarko Usatorrera noa, Domekan Mendarora, ostiralean Endoiara, asteazkenetan Astira (Ibarruri gainean).

Bueltan ez al duzu arazorik izaten kontroletan?

Endoiara noanean, esate baterako, autopistatik Itziartik barrera joaten naiz, baina Lasturtik Mendarora eta handik gurera etortzen naiz. Saihesbideak ikasita dauzkat.

Zer autorekin zabilta orain?

Fiat txiki bat da, baina mendian ibiltzeko balio duena. Botoi bati sakatu eta lau gurpiletan jartzen zaio indarra. Elur pixka bat egiten badu, ona da lau gurpiletan trakzioa izatea.

Anaiarekin andra-gizon asko baino hobeto konpontzen zarela diozu liburuan. Horrek esan nahiko du andra-gizon asko ikusiko zenuela gaizki konpontzen direnak.

Nik tonto aurpegia dut, baina tontotik ez daukat ezer eta ikusi egiten ditut gauzak.

Irakurri ez duzu egiten, baina irratia entzuten duzu. Arrate Irratia?


Lehen garai batean bai, baina orain Euskadi Irratia gehiago entzuten dut. Informazio gehiago ematen dit.

Zertan antzematen zaio adinari?

Indar faltan. Ni indar askokoa izana naiz eta urteekin gutxitu egiten da.

ko elkarrizketa saioak egin genituen gure etxean eta elkarrizketa grabatu luze bat Mintzolan. Ondoren bere bertsoak bildu ditugu, eta, horietatik, 85 berak gogoan zituenak dira. Berak ez du ezer apuntatzen, ez du inoiz agendarik ere erabili. 200 saio inguru egin zituen urteetan ere dena buruan gordezten zuen. Horiek gogoratzen ere lan asko egin dugu edo egin du berak».

Bizkaiko Bertsozale Elkartearen bilera batean atera zen gaia eta Amurizak eskaini zuen bere burua liburua egiteko. «Bizkaiko eta Euskal Herriko bertsolaririk popularrena izan eta lekukotasun idatzirik gabe uztea tamalgarria izango zen».



Amurizak bizpahiru orduko elkarrizketa saio ugari egin ditu Mañukortarekin berari buruzko liburua osatzeko.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

Euskadiko Kutzaren Bilboko egoitza batean egin zuten aurkezpena eta Durangoko Azokan, Markinan Kontzesio egunean egiten den urteroko bertso saioan eta bizpahiru ekitalditan banatu da liburua (15 eurotan). Hala, 500 aleko lehen tirada agortzera iritsi dira jada.

Badu Amurizak pertsonaia berezienganako atxikimendua. Rufino Arrola trikitilariaren bizitza idatzi zuen Trikitilari Elkartearen enkarguz eta Andrakakoa ere pertsonaia bat izan zen. Eta Lazkao Txiki-ekin ere ibili zen bere bizitzari buruzko elkarrizketa bilketa bat egin nahian, baina, hasi baziren ere, ez zuten lan hori burutu.

Amurizak galdetzen dizunean ea nola joaten zaren txapelketa batera edo saio batera lasai ala estu, beti lasai joaten zarela erantzuten duzu.

Ni lasai joaten naiz. Lehenengo edo bigarren izan nahi duzula pentsatuz bazoaz, karga handi batekin zoaz, baina niri ez dit inporta izan bigarren edo zortzigarren gelditu, nire nahia jendeari barre batzuk eragitea delako; beraz, lasai joaten naiz. Bertsoan teknikaz gainera beste gauza batzuk ere juzgatzen ditu jendeak. Eta ni neu jendearen oniritzia irabaztera joaten naiz.

Zuk gipuzkeraz kantatzen duzula diozu, Gipuzkoan asko ibili zarela. Ez duzu sekula bizkaieraz bertsotan egin?

Ezin da egin gaur gipuzkeraz, bihar bizkaieraz eta etzi nafarreraz. Hori gizon bati eskatzeko gehiegi da. Batu antzeko batean jarduten naiz, neuk neuretzako sortutako hizkuntza bat da eta horretan oso ondo maneiatzen naiz.

Badakizu gazteleraz trakets samar hitz egiten ere, jendeari grazia egiteko.

Nik erdaraz txukun samar egiten badakit, baina tarteka buruz ikasitako erretolika batzuk botatzen ditut, «*soy ingeniero de estartas y burnibides y postes alto tensión, perito en ovejas negros...*» eta horrelakoak, broma giroan.

ETBko saio batzuetako partaide izan zinen. Liburuan kexatu egiten zara


gero izan zenituen imitatzailerek baimenik eskatzen ez zizutelako.

Begiratu. Neu imitatuz saio batzuk eginez lau pezeta irabazten badituzte, ez zait gehiegi axola, baina, gauzak ondo egiten hasita, gizonari baimena eskatu egin behar zaio. Niri deitu eta aproba hori egiteko asmoa dutela eta gauzak esplikatuz gero, baietza emango nien. Arazoa da nik egiten ez ditudan akatsak eginez egiten dituztela nire imitazioak. Aurretik ere, bospasei urtean eman zituzten marrazki bizidunak, Lazkao

Txiki eta biok agertzen ginen egunero, eta orduan ere ez zidaten baimenik eskatu.

Zuk emakumeekin tratu handia izan duzu, asko izan dituzu eta dituzu inguruan.

Nik orain urtean hogeitaz jubenatutako egunetara joan behar izaten dut eta askotan bat ere kobratu gabe joan izan naiz eta emakume asko inguratzen zait, asko maite naute eta neuk ere gozatu egiten dut.



Jagoba MANTEROLA | XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Fedeari buruz hitz egiten ari zaretelatik diozu ez duzula errezatzen, baina Jainkoarekin hitz egiten duzula eta zuk hika hitz egiten diozula.

Berak ere nirekin hika egiten duelako. Hika hitz egiten du eta garbi eta ondo gainera. Azkena esan zidan: «Jarrai ezak nik deitu arte, nik deituko diat eta».

Oso erantzun bitxia iruditu zitzaidan. Xabier Amurizak galdetzen dizu ea unibertsoan bizirik ba ote dagoen eta zuk erantzuten diozu ez duzula uste, bestela artabururen batzuk eroriko zirela eta harriak bakarrik erortzen direla espaziotik.

Nik ez dakit, baina ez dut uste hemendik kanpo bizitzarik egongo denik.

Gustu finekoa ere bazara. Talasoterapia gustatzen zaizu eta masajeak ere bai.

Aspaldian ez naiz joan, azken hiru bat urtean, baina gustatzen zaizkit. Lehen tarteka joaten nintzen, masajea, ura eta sauna gustatzen zaizkit. Igerian ez dakit eta bazterraren kontra ibili ohi naiz, erdi igerian, hala moduan.

Ondo bizi zaren itxura hartzen dizut. Ondo bizi ez banaiz, neure kulpak da. Bi mila euroko erretiroa daukat eta pisu baten alokairua. Gaur lantegira joan eta mila euro irabazten ez dituen gazte asko dago inguruotan. Goiza baserrian eman, pare bat orduko siesta egin eta lagunartara joaten naiz afaltzera. Ezin naiz kexatu.

NORBERA DA IZAR

Herriko kirolariek telebistako izarrak ordezkatu dituzte kromo albumetan

📁 JENDARTEA / Aimar Etxeberria Korta

Urte luzeetako ohitura da gu-rean telebistako izarrak protagonista diren kromo albumak osatzearena. Futbolariak izan ohi dira hauen protagonistak gehienetan, baina paradigma aldaketa bat eman da azken urteetan gure inguruan Galizia-ko Cromogal enpresaren ideia bat medio. Jokalari profesionalak beharrean, herriko kirol taldeko kideak dira orain kromoe-tan agertzen direnak, heldu zein ume, emakume zein gizon.

Aipatu bezala, Galiziatik dator ekimena. Cromogal enpresako zuzendarien burutazioa izan zen orain lauzpabost urte inguru, eta bertoko mugak gainditu eta Euskal Herriraino iritsi da ekimena. Manuel Portela da enpresako komertziala eta bikain azaltzen ditu ideiaren jatorria eta hedapenaren arrazoi nagusiak.

Galiziako kirol klubei hasi ziren kromoen albuma ateratzeko eskaintza egiten, baina, izan zuten harrera medio, «zabaltzen joan ginen uretan erortzen den harri bat bezala». «Asturias aldera zabaltzen ginen lehendabizi, Kantabriara gero, Hego Euskal Herrira iritsi arte. Egun, Estatu espainiar osora zabaltzen dugu eskaintza», azaldu du.

Baina, lortu duten hedapena ez da goizetik gauera erdiesten den zerbait. Onartu du Portelak lan asko egin behar izan dutela egun duten oihartzuna izateko. Hasieran, herriz herri ibiltzen ziren, euren eskaintzaren berri ematen. Modu horretan kontentitzen zituzten kirol talde ezberdinak euren jokalaria protagonista izango ziren kromo albumak ateratzeko. «Kirolaren mundua oso txikia da, ordea, denok ezagutzen dugu elkar. Kirol talde ezberdinen arteko harremanak medio, erraza suertatu zaigu bidea egitea», nabarmendu du.

Eskaintza, berez, umeei zuzenduta dagoela argitu du Cromogaleko komertzialak, nahiz eta onartu, «askotan», gurasoak izaten direla bilduma osatzen amaitzen dutenak. «Umeak, eu-

rak agertzen diren kromoa lortzen dutenean, geratu egiten dira. Gurasoak dira albuma gehiago baloratu eta etorkizunari begira oroigarri gisa ikusten dutenak», azaldu du. Hala, gaineratu du sarri ikusten direla gurasoak taldeen entrenamendu edo partiduetan kromoak aldatzen.

Ume eta gurasoen artean sortzen duen ilusioaz gain, badu beste erakargarritasunik ere ekimenak Cromogal enpresako komertzialaren arabera. «Klubari

bizitza ematen dio, kluba herri-ratzeko modu bat da. Gainera, kromoak aldatzeko aitzakiarekin, kafe edo garagardo baten bueltan gelditu ohi dira gurasoak. Bizitza soziala gero eta mugatuagoa dagoen garaiotan, modu polita izan daiteke elkartu eta denbora elkarrekin pasatzeko», nabarmendu du.

Bada, kirol talde bat baino gehiago batu da ekimenara azken lauzpabost urteotan. Gehienak futbol taldeak izan arren,

bestelako kirol talderik ere animatu da ekimenera, Ordizia Rugby Elkartea kasu. Futbol munduari begira jartzen bagara, besteak beste, Azpeitiko Lagun Onak Futbol Taldea edo Abadiño Kirol Elkartea aurki genitzake.

EZ DA NEGOZIO KONTUA

Pentsa liteke, bizi dugun krisi ekonomikoak kirol afizionatuen duen eragina jakinda, urteroko aurrekontuan txertatzeko diru kopuru gehigarri bat lortzeko helburuarekin egindako ekimena dela nor bere klubeko jokalariekin osatutako kromo albuma osatzearena, baina ez. Argi adierazi dute hori ekimenera gehitzea erabaki duten klubetako ordezkariak.

Ordizia Rugby Elkartea, Azpeitiko Lagun Onak taldeak eta Abadiño Kirol Elkartea gauza bat dute komunean: Cromogal enpresako ordezkari bat heldu zela herrira ekimenaren berri aurrez aurre emateko. Hala, proposamen «bitxi, landu eta serio» baten aurrean zeudela

Herriko kirolariak dira orain kromoetako protagonistak, umeen harri durarako.
GAUR8





Ezkerrean, Ander Iturraspe eta Eneko Boveda Athleticceko jokalaria Abadiñoko kromo albumaren aurkezpenean. Eskuinean, hainbat ume kromoak trukatzeko. GAUR8



Lagun Onak taldeko jokalaria bat, kromo albuma eskuetan duela. GAUR8

ohartu ziren Ordizia Rugby Elkarteko kideak, eta, «jende artean harrera ona» izan zezakeela pentsatuta, aurrera egitea erabaki zuten.

Guztira banakako 228 kromo atera dituzte ordiziarrek, eta bertan daude klubeko jokalaria, entrenatzaileak, delegatuak eta baita zuzendaritzako

Hasiera batean, herriz herri ibili behar izaten zuten enpresako arduradunek proposamenaren berri emateko. Denborarekin, ordea, bidea egin du ekimenak, «kirol mundua oso txikia baita»

Ordiziako kasuan, garrantzia berezia eman diote klubeko arduradunek kromoak ez zenbakitzeari, herritarrek jokalaria euren izenekin lot eta ezagut ditzaten

kideak ere. Urtarriletik ari dira kromoak saltzen, eta kalean mugimendu dezente nabaritzen dela adierazi du Ane Irastorza klubeko kideak. «Errepikatutako kromoak trukatzeko ari da jendea lantoki eta ikastetxetan!», esan du. Kromoak zenbakitu gabe daudela azaldu du, «pertsonak euren izenekin lotzeko eta ezagutzeko. Kluba txikia da, eta, ingurukoei zuzenduta dagoenez, positiboa iruditzen zaigu».

Klubaren aldetik balorazio «oso ona» egiten duten arren, ez du uste urtero egiteko gauza bat denik. «Baina urte batzuk barru zergatik ez. Jende berri asko egongo da klubean eta bildumarako album bat gehiago izango litzateke», azpimarratu du.

ETORKIZUNERAKO OROIGARRI

Antzeko iritzia azaldu du Rikardo Amubieta Lagun Onak taldeko zuzendaritzako kideak ere. Hauek ere Cromogal enpresako kide baten bisita izan zuten Azpeitian. «Dena beraiek egiten dutela azaldu zigun: jokalariei argazkiak atera, albumak bidali, kromoak egin...», gogoratu du. Klub bezala gasturik izango ez zutela-eta, aurrera egitea erabaki zuten.

«Hasiera-hasieratik gustatu zitzaigun proposamena», dio Amubietak. Azaldu du negozioa egiteko proposamen gisa saldu zietela kontua, baina, gaineratu du, hasieratik ikusi zutela ez zutela diru asko irabaziko ekimenarekin. «Bizitza osorako gertatzen den oroigarri bat bezala

hartu genuen guk», nabarmendu du. «Orduan, erabakia hartu eta argazkiak ateratzen hasi ginen. Eromena izan zen hura; guretzat lana, eta, umeentzat, al-diz, ilusio izugarria. Igande goiz batean 1.500 argazki atera genituen!», azaldu du.

Pasa den abenduan egin zuten aurkezpena Sanagustin kulturgunean. «Jende askok erosi zituen kromoak egun hartan», dio Lagun Onak taldeko zuzendaritzako kideak. «Saltsa ederra sortu zen. 'Beituok, hi haiz hau' bezalako esaldiak entzuten ziren», gaineratu du. Abenduan eta urtarrilean ekimenak indar handia hartu zuela dioen arren, azkenaldian behera egiten ari dela onartu du. «Guk pentsatzen genuena egia bihurtu da: umeak euren burua bilatzen hasten dira, baina, gero, gurasoak dira benetan albuma amaitzen ari direnak», onartu du.

Zentzu horretan, hamabost egunean behin jartzen dituzte hitzorduak Lagun Onak taldeko umeen gurasoek futbol zelaia- ren inguruetan. Amubietak dio ume «gutxi» ikusten dela kromoak aldatzen. «Falta zaizkien kromoak Internetetik eskatzera ohituta daude gaur egungo umeak, eta guk ez dugu Internet bidez kromoak erosteko aukerarik eman», adierazi du.

Amubieta, zuzendaritzako kide izateaz gain, guraso ere bada. Hala, gurasoek albuma amaitzeko duten irrika ere azaldu digu. «Gure helburua da albuma amaitu eta oroigarri bat izatea,



hemendik urte batzuetara bata noraino iritsi den edo besteak futbola utzi eta parrandara nola dedikatzen den ikusteko!», nabarmendu du.

Guztira 525 kromo atera ditu Lagun Onak taldeak, eta, orain, kromoez gain, posterrak ere eskaintzen hasiko dira azpeitiarrak. «Ume askok nahi dute izan euren posterra, eta badakigu Gabonetan asko izan direla euren seme-alabei posterra oparitu dieten gurasoak», azaldu du.

Ekimena arrakastatsua izanagatik, Amubietak ere onartu du euren jokalariekin osatutako kromo albuma ateratzearena ez dela urtero errepikatuko duten kontu bat. «Gure jokalarien ehuneko handi batek gurekin jarraituko du datozen urteetan, beraz, albuma ez litzateke asko aldatuko urte batetik bestera», onartu du. Ekonomikoki ere «berebizikoa» ez denez klubarentzat, urte batzuk igaro beharko dira Lagun Onak taldeak ekimena errepikatu bitarte. Hala ere, «oso positiboa» da egiten duten balorazioa. «Ilusio handia eragin du jokalarien artean. Hori bai, lan asko



Inklusioa

**Xabier Mikel
Errekondo**

Haur, gor, nera-
be, gazte, ema-
kume, heldu,
itsu, mutu,
adindu, etorkin, gizon,

down... denok gara jendarte bereko gaitasun ezberdinak ditugun herri-tarrak. Guztiok berdinak gara esku-bideetan eta aukera-berdintasune-an; horrela dio legeak. Baina, ez da nahikoa, inoiz bermatuko bada, jendartearen ohitura sozial eta kultura-len eraldaketa ezinbestekoa da. Ga-bezia fisiko, mental, intelektual edo zentzumenekoren bat duten pertso-nak honela ditugu ikusten: «Arazoa pairatzen duten horiek gizartean in-tegratzen lagundu behar dugu». Gi-zartea “gure” egiten dugu eta arazo-ak dituzten “horiek” bereizi. Garaia da barneratzekoa mendekotasuna ez dela beste horien arazoa, baizik eta lehenengo egunetik azkenerai-no maila batean edo bestean guz-tiok bizi dugun egoera.

Ez al gara ba zilborresteari lotuta jaio? Nork ez du bere azken urteak maite dituenekin batera bizitzea de-sio? Nork ez zahartzaro aktiboa? Eta bizitza aktiboa... Beraz, ez da lagun-tza eta asistentzia eredu hutsetik landu behar, ez da gizartearen hon-darra, ez da gibelean ezkuta dezake-gun zerbait. Aitzitik, aurrez aurre dugu hartu behar, bere ahuldade eta potentzialtasun guztiekin, eta gizartearen giza aniztasuna natural-ki barnebildu. Beraz, ez da pairatzen den egoera bat, baizik eta pertsona batek daukan egoera; eta kito!

Partxez partxe eraikitzen jarraitu ordez, guztion aukera-berdintasuna benetan bermatuko badugu, “ho-riek-gu” dikotomia hautsi egin be-har dugu, eta integrazioaren kon-tzeptu pozoitsua zakarrontzira bota. Ideia eta termino berriak ongi barneratzea da norberaren egitekoa asmoak, ekintzak eta proiektuak pentsatzen hasten garen unetik ber-tatik aplikatzeko. Zugandik eta ni-gandik hasita.

Kontua ez da mendekotasun ego-eran dagoen herritarra gizartera in-tegratzea, baizik eta gaitasun ezber-dinak dituzten herritarrez osatuta dagoen jendarte bera inklusibo bi-lakatzea. •

egin behar izan dugu», azpima-rratu du Amubietak.

Abadiñoko futbol taldeko ki-deek ere argi dute: ez da urtero egiteko kontua. Hala dio, behin-tzat, Adrian Irazola klubeko ki-rol zuzendariak. Urtero eginez gero, umeez ilusioa galduko lu-ketela uste du, eta, ondorioz, datorren denboraldiari begira esperientzia errepikatzeko as-morik ez dutela aurreratu du.

Oporraldia amaitu eta iraila hasieran ekin zioten iniziatiba martxan jartzeari Abadiñon. «Kromoen kontuarekin aurrera egin ala ez erabakitzeko or-duan, ikusi genuen ez zigula

Hamabost egunetik behin hitzordua zehazten dute Lagun Onak futbol taldeko jokalarien hainbat gurasok. Kasu gehienetan, gurasoak eurak dira bildumak amaitzen dituztenak

Abadiñon onartzen dute ez dutela diru irabazi handirik izango kromo albuma dela eta. Hala, pisu askoz handiagoa izan du umeen ilusioak ekimenarekin aurrera egitea erabakitzeko

lan karga handiegirik suposa-tzen. Beraiek dira dena egiten dutenak, guk kromoak salmen-ta puntuetara eraman besterik ez dugu egin behar izan», adie-razi du.

Abadiñoko futbol klubak 11 talde ditu, eta 350 argazki atera dituzte guztira. Pakete bakoit-zak sei kromo ditu barruan, eta euro baten truke ari dira saltzen. Lan karga astunegirik ez, baina diru etekin handiegi-rik ere ez dute ekimenera gehi-tzen diren taldeek. Abadiñoko kirol zuzendariak azaldu due-nez, kromoen salmentarekin lortutako diruaren %10arekin soilik geratzen dira. Horregatik, diruagatik baino, umeen ilusio-agatik egiten dutela azpimarra-tu du. «Ume bakoitzak bere kromoa izatea nahi du, profe-sionalekin egiten denaren an-tzeko zerbait delako», esan du.

Ekimenak izan duen harrera medio, dagoeneko jendea bil-duma amaitzen hasia dela azal-du du Irazolak. Hori bai, prin-tzipioz, denboraldia amaitu arte kromoak saltzen jarraitze-ko asmoa dutela aurreratu du.



Gorka Zozaia
Kimikaria

Mareak mareatuta

arkitektura / zientzia / teknologia


Mareak mareatuta, edo, euskara jatorragoan, itsasaldia zorabiatuta, erotuta, zoratuta, aspertuta, nekatuta, nazkatuta, gogaituta. Hitzegia eskaintzen dizkidan hitz horiek guztiak ez dira gai urdaileko ondoeza azaltzeko. Azken urteotan, ez dira hiru pasa, mantra bilakatu zaidan esaldia errepikatzen baretu ohi ditut barrenak: «ongi etorri garai interesgarriotara!». Eta itsasaldia esan dut, baina berdin politika, ekonomia zein jendarte, berdin azterketa objektiboa edo subjektiboa izan, azken urteotan ia edozein hausnarketagai amaitzen zaigu soluziorik gabe eta ondorio orokor horrekin; «garai interesgarriak, zer egingo diogu ba!». Heldulekurik gabe, lasta bako ontzi lez, nolabait kontsolagarria gertatzen den esaldia, baina ankerkeriaz bete. Orain ulertzen dut, gero eta gehiago, gero eta argiago, Txalapartak argitaratutako Slavoj Zizeken “¡Bienvenidos a tiempos interesantes!” liburuaren kontra-azalean irakurritakoa; nola Txinan ez diren pertsona gorrotagarriak antzarak ferratzera bidaltzen, ez eta zainuriak frijitzera, baizik eta garai interesgarriak bizitzera.

Ankerra da bizi dugun garaia; etengabeko mareo baten modukoa. Dena mugimenduan, dena aldakor, egun batzuk lasai, baina beste batzuetan goizean gora eta arratsean behera, marea bat bezalako mareoa. Joan den asteazkenean, adibidez, Guardia Zibilaren operazio batekin gosaldia eta auzoan 24 urtez bahitua izan den lagunari egindako harrerarekin afaldu. Gora, behera, gora, behera... Ez dira hiru urte pasa, baina nire urdailari gero eta gehiago kostatzen zaio dieta hau digeritzea. Antzarrak ferratzera... hori bai pagotxa! Udaberrian sartu berri, jendartean bezala naturan beha litekeen dialektika berbera; ekinozioa. Eguzki eklipsea joan den ostiralean, “mendeko itsasaldia” izendaturiko marea biziak asteburuan, ordu aldaketa gaur gauean eta gertaera guztion agertoki ohikoa diren eguraldi petrala eta urtaro aldatari loturiko osasun gorabeherak.

Tira, egoera guztietatik argi printzak jasotzen jakin behar da, eta, urdailari eusteko modu bat ere badenez, ikasgai bat atera dut guzti honetatik; itsasaldia zergatik eta nola ematen diren. Sekula bi aldiz pentsatu gabeko gaia izan dut orain artean; ohiko antropozentrismotik, leku guztietan hemen ematen den fenomenoaren errepikatzen dela pentsatu izan dut. Noski, itsaso itxi eta txikietan gutxiago ematen dela banekien, baina zur eta lur gelditu naiz errealitatean urak gure planetan zelako gorabeherak dituen jantean. Irudian jasotzen da zehazki: gris tonu ezberdinetan itsas maila-

ren gorabehera zenbatekoa den, eta lerroen bidez itsasgora bereko puntuak lotuz (lerro kotidialak, ingelesezko *tide* edo itsasalditik). Jakintzat nuen Eguzkiaren eta batez ere Ilargiaren erakarpinak igoarazten zuela ura bere norabidean, lerrokatzean marea biziak emanez eta hilak elkarzut direnean, eta intentsitate ezberdinaz astroen distantzia eta planoaren arabera. Ekua-toretik hurbil astroen eragina txikiagoa dela banekien (Lurra-ren errotazioaren ondorioz indar zentrifugoak indartsuagoak dira hemen eta itsasoa eta atmosfera batez ere lodiatzen ditu, astroen eragina gutxituz), baina ez nengoen jabetuta fenomeno honen dinamikotasunaz eta kontinenteen garrantziaz.

Nire intuizioaren arabera lerro kotidialek meridioen nahiko parekoak beharko lukete izan, eta ez irudiko saltsa hori. Baina Lurraren gainazalean dagoen ur geruza oso fina da (Lurra saskibaloia balitz, gainazaleko ur guztia pinpon pilota batean sar liteke!), eta kontinenteek erabat baldintzatzen dute tartean den ur masan eman daitezkeen oszilazioak. Izan ere, dinamiko ki ulertu behar da astroek urarengan duten eragina, kulunka bati eragiten dion eskua bezalaxe. Hala, Ilargiaren eskuaren maiztasunari hobeto egokitzen zaio Ozeano Atlantikoaren kulunka, eta, Ozeano Barearena, aldiz, handiegia izanik, ez horrenbeste; horrexegatik da izen horren jabe. Gainera, itsaso zabalean itsasaldia ez du ia gorabeherarik eta kostalde jakinetan hartzen du garrantzia, gurean kasu. Irudiak zer aztertu ugari eskaintzen du, eta gustatu zait jakitea kosta guztiak ez direla berdinak. Baina batez ere atera dudan ondorioa honakoa da: egoera jakin bakoitzean eragiteko badela oszilazio jakin bat, eta, gure mareoa, oszilazio horrekin ez asmatzetik datorrela, sinpleki. Garai interesgarriok ondo irakurri eta modu konpasatuan ekitea, horratx Kantauri hegi honetako erronka! •



{ koaderno } Laura Mintegi

Errelatoa idatzi aurretik

Bortizkeria baten zikloaren amaieran errelatoaren auziak berebiziko garrantzitsua hartu du. Militarki inork irabazi ez duen hone-tan, memoriaren bataila irabazi beharrean daude guztiak. Arazoa da ez dagoela errelato orekatua egiterik aldeztu aurretik protagonis-ta guztiek ez badute gaitasunik azaleratzeko beren erantzukizuna ziklo bortitzean. Oraingo faseari dagokio bai-tara bueltatzea eta, zintzo, hutsuneak aitortzea. Alderdiek, ordea, hurkoaren akatsa kapitulu bihurtu nahi dute memoriaren liburuan, baina ez daude prest nehork kapitulurik idatz dezan norberaren akatsak a-grian. Memoria lubaki bihurtu dute.

Hemen, ordea, ez dago inor bortizkeriaren dinamikan parte hartu ez duenik.

PPk iraunarazi du frankismoa espirituan eta praxian. Trantsizioko lehen urteetan itxuraldaketa kosmetikoa egin bazuen ere, urtetako gehiengo osoak permititu dio egitea bakarrik diktadura batean egin zitekeena.

PSOE/PSEk lur azpian utzi ditu arbaso erailak eta, idea-rio errepublikarra ahaztuta, gobernutik apuntalatu du frankismoaren egokitzape-na. Hori guztia gutxi balitz, errepresio propioa antolatu du, legez kanpo, indar esta-talekin baino efikazagoa izan nahian kontrainsurjen-tziaren borrokan.

PNVk bi barajarekin joka-tu ohi du gerra aurretik, ge-rra bitartean eta gerraondoa ere bai. Lehen postfran-kismoan ontzat eman zuen bortizkeria, aho txikiaz kritikatu du geroago, eta, azken garaian, aurre egin dio, baina bortizkeriari etekina atereaz Madrilen; es-painiar gobernuaren estrategiari lagundu dio “borti-tzak” ito nahian, euste-horma funtzioa bere eginda, eta, horren truke, Madrilek eskuak libre utzi dizkio au-tonomia bere patrimonio bihurtu dezan (Arzalluzen in-txaurrondoa).

Ezker Abertzaleak uste izan du erasoari dagokion erantzuna eraso dela, eta frankismoak ez duela beste lengoaiarik ezagutzen bortizkeria baino. Erakundearen ekintzak eremu militarretik eremu zibilera pasatu dire-nean, ordea, ez da gai izan desaktibatzeke dialektika bortitza, eta denbora luzean, luzeegian, babestu du ir-tenbiderik ez duen dinamika.

Herritar abertzale asko (ez soilik ezkerrekoak) bat eto-rra dira zenbait hilketarekin, garai batzuetan bidezko iku-si baitute indarrez erantzutea kolpisten errepresio basa-tiari. Batetik, memoria kolektiboan bizirik daudelako bide ertzetan oraindik datzaten hildakoak (jeltzaleak, ko-munistak, anarkistak, abertzaleak), eta, bestetik, genozi-dio kulturalak ez duelako etenik izan.

Estatuari eusten dioten alderdiek, aldiz, ez dute zirkinik egin eskubide oinarritzkoenak urratu direnean, ez eta po-liziak langileak hil dituenen. Eta, azkenik, PP, PSOE eta PNV ez dira gai izan torturarekin amaitzeko. Ezta gober-nuan egon direnean ere. Ez dute asmorik izan, bistan da.

Aitormen zintzo eta sakona egin beharrean daude in-dar politiko guzti-guztiak. Bat ere ez da libratzen akatsak aitortzetik. Aitormen serio eta eskuzabalak osatuko du zoru etikoa. Ez dago beste zorurik.

Herritarrek, beren apalean, gogotsu hasi dira istorio txikiz ehuntzen historia handia. Noizbait aurkari izanda-

Herritarrek, beren apalean, gogotsu hasi
dira istorio txikiz ehuntzen historia handia.
Noizbait aurkari izandakoarengana
hurbildu dira eta belarria jarri dute

koarengana hurbildu dira eta belarria jarri dute. Eta ohartu dira ez dagoela alde handirik bataren eta bestea-ren sufrimenduetan. Eta biek ala biek nahi dutela beren ondorengoak bakean bizi daitezela.

Alderdiak, ordea, arduratuago daude kapituluak dikta-tzen nahierara. Arerioaren aitorten urria gerra-trofeo bihurtu dute. Zeken eta laburrera ari dira jokatzan, jakin badakitelako edozein aitorten pasatuko dela historiaren orrietara zorraren atalean. Eta honela gabilta.

Edonola ere, ez da ahaztu behar zenbait gauza aitortze-ak oraindik ere kartzelara eramane zaitzakeela, gerra-lege-dia indarrean dagoelako gerra-gobernu baten eskuetan. Inork ezingo luke esan, hala pentsatu arren, ekintza ba-tzuk justifikaturik daudela. Delitua delako. Solidaritatea bera ere delitua delako. Eta hipokrisia legalitatea baino zabalagoa delako. •

«Oso bizia izan da mugimendu feminista, beti emakumeak nola erakarri birpentsatzen»

Hamar urteko lanaren uztia jasotzeaz dira Edurne Epelde (Zarautz, 1981) eta Miren Aranguren (Iruñea, 1981). Bilgune Feministako eta Emagineko kideak dira biak, eta, ikerlarien antzera, euskal feminismoaren arrastoaren atzetik aritu dira, hemerotea, artxibo eta emakumeen ahoe-tan. Bildutako memoriak “Gure genealogia feministak” liburuan iltzatu dituzte. *Crowdfunding* edo finantzaketa kolektiboko kanpaina bat abiatu dute liburua autoeditatzeko (*karena.eu*) eta ekarpenak jasotzeko epea hogeia egun barru bukatzen bada ere, lehen egunetan aise gainditu zuten beharrezko kopurua. Pozarren dau-de emaitzarekin eta herritarren ekarpenarekin.

Laster izango dugu esku artean «Gure genealogia feministak», nola pizten da, baina, liburu hau egiteko grina?

Edurne Epele: Ideia aspalditik dagoen egitasmoa da, eta ez gugarik bakarrik. Mugimendu feministan 15-20 urte daramaten emakumeen beharra da. Emagineko lantaldean, gazteak eta urte luzez mugimendu feministan zebiltzan feministak gaude. Gertatutakoa jasotzen ez bazen galtzeko arriskua ikusten zutenak batetik, eta, kontatzen zuten hori kuriositate eta interes handiaz jasotzen gurenak, bestetik. Lantalde horretan, beraz, bi behar horiek uztartu ziren.

Miren Aranguren: Bestetik, Euskal Herriko ikuspegitik halako lanik egin ez izanak animatu egin gintuen. Ordura arte, Estatu mailakoak hala akaso talde feminista zehatzen inguruko lanak zeuden. Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen eta euskaraz egiten den lehen lana da gurea.

Sorpresa hartu duzue hala espero zenuten mugimendu feminista aurkitu duzue?

EDURNE EPELDE MIREN ARANGUREN GURE GENEALOGIA FEMINISTAK

Feminismoaren arrastoa jarraituz, Euskal Herriko mapa morea koloreztatu dute, euskal mugimendu feminista azken lau hamarkadotan bizi-bizi egon dela frogatuz.

oihana.llorente@gaur8.info

EE: Mugimendu garrantzitsu eta bizia izan zela bagenekien hasi ginenean ere, baina, inondik inora ez genuen imajinatu topatu dugun dimentsio hau. Talde feministak txokoz txoko sortzen eta desagertzen eta sortzen aritu dira azken 40 urteotan. Guk diogu txanpinoiaren efektua izan dutela; gutxien espero duzunean atera eta piztu dira taldeak. Mugimendua beti egon da oso bizi, beti egon da pentsatzen nola iritsi emakumeengana eta nola izan eragin-korrango jendartea eraldatzeko. Ez genuen uste feminismoak hainbesteko emana zuenik!

Noiz aurkitu duzue feminismoaren lehen arrastoa?

EE: Ez dago urte zehatzik, baina 1968ko maiatzaren ostean kokatu dugu feminismoaren sorrera gurean. Ipar Euskal Herrian lehenengo, bertan aurkitu baititugu lehen talde legalak, kanpora begira publikoki jarduten zutenak. Ezkerreko mugimendu indartsu horren baitan sortu ziren batetik, baina baita Ipar Euskal Herrian bizi-bizi zegoen aber-tzaletasunaren testuinguruan ere; ordukoak dira ikastolen sorrera, frankismotik ihes egiten zutenak babesteko mugimendua.... Estatu frantsesean erreferente feminista oso indartsua zuten gainera, abortuaren aldeko borroka; 1975ean legalizatu zen eta eferbeszentzia handiko garaia zen. Zehazki, 1972tik aurrera eta Baiona inguruan, lau edo bost talde aurki daitezke, hasiera-hasieratik haien arteko eztabaida politikoein.

Zein eztabaida mota ziren orduko feministen kezka iturri?

MA: Subjektu politikoa, adibidez, beti izan da eztabaidagai. Feministek identitatea desberdin bizi zuten orduan ere. Are gehiago, Bidasoaren bi aldeetan subjektu politikoaren eztabaidarekin abiatzen da mugimendua bera. Militante independenteak ala bikoitzak, horixe zen eztabaidaren gakoa. Lehenen arabera, sexu zapalkuntza bere horretan klase zapalkuntza mota bat da, eta, beraz, alderdi eta eragile mistoetatik erabat auto-

nomo ikusten zuten euren militantzia; aukera hori arbuatuz gainera. Militantzia bikoitza defendatzen zutenek, aldiz, klase zapalkuntza eta sexu zapalkuntza bereizi eta zapalkuntza bikoitza ikusten zuten. Borroka feminista modu autonomoan garatu beharra ikusten zuten, baina baita alderdi, sindikatu edo bestelako eragile mistoetan eragitea ere. Euskal Herrian militantzia bikoitza da ikuspegi babestuen, feminismora batzen diren emakume gehientsuenak alderdi politikoetan ala sindikatuetan zenbiltzan-eta.

Klase eta sexu zapalkuntza beti eskutik hartuta joan dira.

MA: Euskal Herriko mugimendu feministak ezkerreko ikuspegi oso barneratua izan du beti. Beste herrialde batzuekin alderatuta ezaugarritzen duen zerbait da, izan ere, beste herrialde batzuetan emakume talde liberalak sortu izan dira. Hemen ez da halakorik gertatu, ez behintzat hasieran; gerora feminismo instituzionala sortu da.

Nazio zapalkuntzak ere bere isla izango zuen euskal feminismoan.

EE: Bai, eta zapalkuntza hirukoitzen sorrera ere 1974an kokatzen da, Euskal Emazteak Bere Askatasunaren Aldeko (EBAA) militanteen artean. Gehienak alderdi politikoetan parte hartzen zuten emakumeak ziren, Euskal Gogoan bereziki, eta, klase eta nazio ikuspegiaren gain, sexu zapalkuntzaz jabetu ziren; hala, emakume ikuspegiaren gehitu zioten borrokari.

Feminismoaren euskal mapa osatu nahi zenuten, arantzatxo bat geratu zaizue baina.

MA: Bai, Zuberoan ez dugu deus topatu. Egituren bila joan gara, guk ez dugu emakume feministen historia bildu, eta egituraketa zehatzik ez dugu aurkitu aztertutako lau hamarkadotan.

Hego Euskal Herrian, berriz, noiz esnatu zen feminismoa?

EE: Frankismo garaian bazeuden hainbat ekintza feminista, baina, noski, klandestinitatean.

Accion Catolica elkartean lokalak, Falangeko Seccion Femenina berak antolatutako tailerak edo banku fundazioak sustatzen zituzten kultur zentroak izango ziren ondorengo talde feministen haztegi. Gune horietan elkartu eta kezkak konpartitzen zituzten emakumeek; hasieran seguruenik senarra eta seme-alabak aipatuko zituzten, baina gerora sexualitatea, erasoak, indarkeria... ere izango zituzten hizpide. Auzo elkarteak, elizaren inguruko taldeen eta Franco hil ondoren alderdi politikoen bueltan loratu ziren lehen talde feministak.

MA: Franco hil ostean dena azaleratu eta sortzen da, mugimendu politiko guztia. Ordurako, gainera, unibertsitatera joaten hasiak ziren emakume gutxi batzuk, eta, ikasketak zituzten emakumeen artean, feminismoa bazetorren Estatu espainolek zein Estatu frantsesetik. Horrek guztiak eragin zuen feminismoaren sorreran.

Oso heterogeneoa izan al da mugimendu feminista bere hastapenetik?

EE: Eztabaida asko izan dituen kolektibo txikia izan dela esango nuke, eta, horrek, noski, antolaketan eragina izan du.

MA: Bai, baina, aldi berean, nahiko mugimendu unitarioa izateko bokazioa izan du hasieratik. Nahiz eta talde txikietan antolatu, feministen arteko lotura handia egon da historikoki. Bereziki Hego Euskal Herrian, hiriburuetak emakumeen asanbladak bete dute funtzio hori. Batasunaren aldeko apustua egiten da eta kolore oso anitzeko emakumeak batzen dira. Modu unibertsalean zapalduta daudela ohartu eta horri aurre egiteko elkartzearen alde egiten dute emakumeek.

Noiz sortzen dira aipaturiko asanbladak?

MA: 1976an Bizkaiko eta Arabako asanbladak sortzen dira, eta 1978-1979 buelta horretan Gipuzkoa eta Nafarroakoak. Lehendabiziko biak, gainera, etenik gabe aritu dira lanean gaur egunera arte.



Zeintzuk izan ziren lehendabiziko aldarrikapenak?

EE: Hasieran, eta, Hego Euskal Herrian bereziki, amnistiaren aldarrikapena gori-gori zegoenean, feministek aldarri horrekin bat egin eta preso politiko gisa ere abortuagatik, adulterioagatik, dibortzioagatik edota lesbianismoagatik atxilotutako emakumeak aintzat hartzen hasi ziren, eta, noski, eurentzat ere amnistia eskatzen zuten. Ondoren haurtzaindegiak, *planning* zentroak, aborturako eskubidea, indarkeria... etorriko ziren.

Abortua, indarkeria... tamalez borrokak ez dira gehiegi aldatu.

MA: Ez, baina, batzuetan, ez dakit tamalez ala zorionez den. Abortuaren borrokak, adibidez, mugimendu feminista antolatu, sustatu eta indartu egin du bere momentu guztietan. Bai Basauriko epaiketak zirenean bai oraintsu Gallardonaren lege erreformarekin. Eztabaidatzerako orduan adostasun handia lortu zuten hasieratik gorputzaren, sexualitatearen eta ugalketa eskubideen bueltan.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako borrokak bai eduki du garapena, ezta?

EE: Hasieran kaleko indarkeria salatzen zen bakarrik, bortxaketak, erasoak... Pixkanaka, baina, banaketekin eta bereziki banatutako emakumeen elkarteak eskutik, etxe barruan gertatzen den indarkeriaz ohartu eta jabetu ziren. Indarkeriaren egiturazko izaera hori identifikatzen eta salatzen hasten dira, eta, horren lekuko, 1984ko bigarren jardunaldi feministetan indarkeria gai zentrala izaten da.

Liburua nola antolatu duzue?

MA: Zati nagusia atal kronologikoa da, antolaketa, teoria feminista eta testuinguruari lotutakoa. Ondoren sei borroka bildu ditugu eta horien kontakizuna egiten dugu, bai diskurtsiboki bai izandako ekintza batzuen.

Zeintzuk dira borroka horiek?

MA: Abortua, indarkeria, lesbianismoa, Martxoaren 8a, lana eta enplegua, eta, azkena, "feminis-

tak plazara” deitu duguna. Espazio publikoa hartzea nola eman den aztertu nahi izan dugu, jai eremuetan, praktika artistiko feministekin, musikan, hezkuntzan, komunikabideetan...

Zein izan da liburua egiteko erabili duzuen metodologia?

EE: Hamar urte igaro dira Emagineko lantalde horren mandatua hartu genuenetik, bere galdiuneekin, noski. Hala ere, aurretik lan bat egin zegoelako izan zen guretzat abiapuntua errazagoa. 2005etik 2008ra, datu bilketan tematu ginen: artxiboak, hemerroteka, elkarrizketak... Liburua elkarrizketa pertsonaletan oinarritu dugu gehienbat; pentsa, ehun emakume baina gehiagorekin egon gara. Gerora eztabaida taldeak egin genituen, emakume batzuek besteen memorian eragiten zutela ohartu bainen; lan dinamika polita izan zen, garaiak, herrialdeka batu genituen. Orduan ez ginen gai izan ordea, bildutako guztia zerbaitetan gauzatzeko eta *impasse* batean geratu zen lana. Jasotako guztia itzultzeko asmoz, ikastaroak eta hitzaldiak ematen jarri ginen Euskal Herri osotik. Eta hor testigantzak biderkatu egin ziren, herri batera gindoazen bakoitzean, herri hartako asanbladan aritutako emakumeekin egiten genuen topo.

MA: Liburua ez ateratzearen arantza barruan genuen denbora tarte horretan guztian, eta, azkenean, Gipuzkoako Aldundiari esker, bilduta genuen guztiari forma emateko aukera izan dugu, ia urte eta erdiz.

Lanaren fruitua laster edukiko duzue eskuartean.

MA: Apirilaren 29an liburuaren 1.000 aleak eskuragarri egongo dira. Liburuaren aurkezpenarekin batera, erakusketa feminista irekiko dugu, apirilaren 29tik ekainaren 13ra Donostiako Koldo Mitxelenako ganbaran. Ordurako ere, egitaraua prestatzen ari gara, historia feminista biltzeko bestelako esperientziak ezagutarazteko, euskal feminismoaren inguruko solasalditxo bat egiteko... Eta erakusketako



bizipen guztiekin ekaina amaieran aurkeztuko dugun dokumentala ere egingo dugu.

Zer-nolako esperientzia pertsonala izan da liburu hau egitea?

MA: Gogorra, oso dimentsio zabala hartzen du, gehiegizkoa agian, eta muga non ipini, zer kontatu eta zer ez erabakitzea izan da zailena. Genuen guztiari forma ematea, alegia. Baina oso zorioneko sentitzen naiz; emakumeekin egoteko aukera, Iparraldeko bidaiak... pasada bat izan da. Guk, gainera, militantziazatik egin dugu lan hau eta gaur egun jarduteko pista asko eman dizkigu. Sekulako ikaspen prozesua izan da, hunkitu egiten duen horietakoa.

EE: Kontzientzia hartze bat izan da, zer eztabaidatu zuten, zer ekimen egin zituzten jakitea... Feminista gisa nituen kezka eta zalantzei azalpena emateko balio izan dit. Mugimendu feministan amorru batengatik sartzen zara, eta, atzera begira jarri eta ezer ez ikustetik, ez jakina izatetik, horren jabe izatera sekulako aldea dago. Hau dena izan gara! *Mekaguen la Rusia!*

«Talde feminista batek ematen duena, gaur, atzo eta gero, beti izango da oso baliagarria, bizi esperientzia izugarria eta aldaketarako tresna indartsua»

Eta zenbat izango garen! Zugar kolektibizatu egiten da indarra! Mugimendu horren parte izateak harrotasuna ematen dizu.

Lau hamarkadako ibilbidearen berri ematen duzue, egun, baina, nola ikusten duzue mugimendu feminista?

MA: Alde batetik, indartsu, bereziki zenbat emakume sentitzen garen feminista edo zenbat toki eta eremutan dauden ekimen feministak ikusita. Militantzia feminista autonomoa edo talde feministak, baina, ez ditut hain indartsu ikusten. Ez dut uste feminismoarekin lotutako hausnarketa denik bakarrik, badira urte batzuk mugimendu sozialetan antolaketa ereduaren, militantzia ereduaren edota interesen aldaketa eman denetik. Nik sinisten jarraitzen dut, noski, talde feministek eragin ditzaketen eraldaketetan, baina ez dakit antolatuta ez dauden emakumeek horretan sinisten ote duten. Erronka handia dugu mugimendu feministan, batetik, politiko-ki gure eraginkortasuna handitzeko, eta, bestetik, antolaketa ereduak berraztertzeke.

EE: Egia da antolatzeke eta elkartzeke modua aldatu egin dela, baina 40 urteko ibilbidea aztertu ostean konfiantza ematen dit talde feministek eman duten guztia aldagarria ez dela esateko. Taldeen inguruko oso oroitzen onak dituzte elkarrizketatu ditugunak, oso giro goxoa, babesa, protagonismoa, erokeria... Egia da egun antolaketa feminista ez dagoela bere onenean, egun feminismoa ere beste lekuetatik dator-eta, masterretatik, akademietatik... Talde feminista batek ematen dizuna, gaur, atzo eta gero, beti izango da oso-oso baliagarria, bizi esperientzia izugarria eta aldaketarako tresna oso indartsua. Eta ilusio hori kutsatu egiten da eta horrek konfiantza ematen dit.

Finantzaketa kanpaina abiatu duzue liburuaren editatzeko.

MA: Liburua autoeditatu egin dugu, alea aurrez erosteko *crowdfunding* kanpaina baten bidez; konfiantza keinu bat da. Ekarpenak ere egin daitezke, aurkezpen ekitaldien truke. Oso pozik gaude, poztekoa da liburuaren usaindu gabe erostea.

LUR AZPIKO ABENTURAK



iRRITZIA:



Amaia
BALLESTEROS



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

«Elikadura bezalako gai serio batean botere publikoen erantzukizunak handiagoa beharko luke»

genikoen inguruan, ez dakit hori administrazioaren akatsa den, ala besterik gabe informazioa ez dagoelako eskuragarri gertatzen den. Kontsumitzailearen ikuspuntutik, bistan da eskubidea duela arto bat transgenikoa den ala ez jakiteko, baina ez hori bakarrik: herritarrok eskubidea daukagu jakiteko edozein produkturen ekoizpenean transgenikoak erabili diren ala ez. Trazabilitatea bermatuta egotea eta informazioa gardena izatea herritarren eskubidea da. Botere publikoek gauzak hobetu beharko dituzte egoera hori konpontzeko eta informazio gardena herritarroi emateko. Kontsumitzaile gisa, nire susmoa da informazio hori ez daukadala eskura.

Transgenikoen auzian, zientzia aurretik doala esango zenuke edota zientzialariak laborategiko mikroskopiaren ikuspegitik ateratzen ez direla uste duzu?

Eztabaida zientifikoarekin batera, nire ustez beharrezkoa da eztabaida etikoa ere planteatzea. Hori beste arlo batzuetan egiten da, baina, elikadurarekin lotutako ikerkuntzan, gizakion osasunarekin horrenbestearaino lotutako gaia izanda ere, eztabaida etikoa ez da planteatzen. Teknologia jakin batzuen zabalkundearekin hasi baino lehen, ezinbestekoa izan beharko litzateke azterketa garden, inpartzial eta objektiboak egitea. Transgenikoen kasuan, hori ez da egiten ari.

«Naturala», «amamarena», «jasangarriagoa», «bertokoa»... tankerako aipamenak gero eta ohikoagoak dira saltokietako apaletan. Araudirik ezta jarraipenik ez duten, eta gehienetan fundamentu gutxi daukaten aipamenon aurrean, kontsumitzailea babestuta dagoela esango zenuke?

Botere publikoek badute erantzukizun bat publizitatearen arloan. Esango nuke, kasu askotan,

Herritarren ize-nean administrazioari kontuak eskatzea da arartekoaren betebeharra. Mundu osoan zehar existitzen diren *ombudsman* edo herritarren eskubideen defendatzaileen bertsio euskalduna da. Azken hamar urteotan, Iñigo Lamarca Iturbe izan da EAEko arartekoa. Abokatua formazioz, zuzenbide konstituzionaleko irakaslea izandakoa da EHUn, baita euskara irakaslea ere AEKn. Eskubide sozialen aldeko ekin-tzailea gaztetatik, ararteko lez egingo duen azkeneko hilabetean berarekin solasalditxo bat egiteko aukera izan dugu.

Zein da arartekoaren lana baldintzatzen duen testuingurua?

Arartekoaren funtzionamendua erabat lotuta dago momentuan indarrean den ordenamendu juridikoarekin. Hau da, guk erreklamazioak aztertzen ditugu, ikusteko botere publikoek ezarritako politiken ondorioz giza eskubideen urraketarik gertatu den ala ez. Baina hori guztiori ordenamendu juridikoaren barruan egin behar dugu. Interpretatzea dezakegu lege bat giza eskubideen aurkakoa dela, baina aldaketaren bat lortzeko oso ondo oinarritu behar dugu kasua, eta hori egiteko dokumentazio landua eskura izatea ezinbestekoa da. Ez dezagun ahaztu arartekoaren adierazpenak ez direla lotesleak. Horregatik, zenbat eta informazio gehiago eman kasuari buruz, hobe. Herritarrek arartekoarengana jotzen dutenean zerbait erreklamatzera, gaia, hein batean behintzat, landua ekartzeko eskatzen diegu.

Elikadurarekin lotutako zein arlotan heldu zaizkizu kexa gehien? Emaizta positiboak izan dituzu?

Elikadurarekin zerikusi zuzena duten kexarik ez dugu apenas

izan. Duela gutxi sartu zitzaigun kexa bat aipatuko dut: eskoletako jantokietan sortzen diren soberakinak aprobetxatzeko, alegia, behar gorrian daudenei helarazteko, eskaria egin zigun elkarte batek. Gestioak egin genituen administrazioaren aurrean, baina lehen unean behintzat, osasun kontrolei buruzko zenbait arau medio, ez zen posible izan zentzuzkoa zen eskari hori gauzatzea. Nekazaritza eta abeltzaintza arloetan jaso izan dugu kexarik ekoizpenarekin eta banaketarako baimenekin zerikusia duten gorabeherengatik. Jatorri izena delakoarekin lotutako kexarik ere izan dugu.

Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoan jarduten diren baserritarrek nahi baino sarriago ikusten dituzte arriskuan beren lursailak; albokoak pestizidak erabiltzen dituelako, bat-batean administrazioak berak botatako intsektizida-uria datorrelako...

Nekazaritza eredu ekologikoarentzat lekurik ez dagoela ere entzunak gara. Arartekoaren ustez, nor legoke joko kanpo?

Herriar bezala, nire ustez kezagarria da hainbeste produktu erabili beharra, izan nekazartzan, izan lorezaintzan, izan basoen kudeaketan... Esango nuke produktuon erabilerak zalan-tzan jartzen duela bai ingurumenaren osasuna bai gizakiona ere.

Transgenikoak dira elikadurarekin lotutako gai polemikoenetarikoa. European oposizioa handia izanda ere (herrialde askotan ekoizpena debekatuta dago), merkaturatzean epelago jokatu da, eta dagoeneko gizakion elikaduran txertatuta daude, ekoizpen konbentzionaletik datozen abereetariko asko transgenikoekin elikatzen direlako. Herritarren eskubideak babestuta daude?

Argi dagoena da herritarrek ez duela informazio nahikoa trans-


IÑIGO LAMARCA ITURBE

EAE-KO ARARTEKOA

Administrazioaren parean herritarrak babestea da arartekoaren eginbeharra.

Elikadurari dagokionez, iristen al dira kexak? Ba al da ardurarik horren inguruan?

Iñigo Lamacaren ustez, behar baino gutxiago. Eta erakundeek ere gaia serioago hartu beharko luketela uste du.



ARARTEKOA

direna baino askoz zorrotzagoak izan beharko luketela. Kontsumitzaileak ez daude babestuta publizitatearen aurrean. Elikadura bezalako gai serio batean botere publikoen erantzukizuna are handiagoa da. Esan bezala, informazio zehatza izan behar dute herritarrek. Nire ustez publizitatean zenbait muga jarri beharko lirатеke. Argi dago publizitatearen helburua produktu jakin bat saltzea dela, baina hori egitea ez da zilegi produktu horrek helarazten duen informazioa zuzena ez bada.

Elikagai konbentzionalak seguruak direla ez dugu guk zalantzan jarriko, baina badirudi kontsumitzaileak baieztapen horrekin konformatu beharra duela, nahiz eta apenas informaziozirik badaukagun elikagaien ekoizpenean zein eraldaketan erabiltzen diren prozedurez. Elikagai ekologiko osasuntsuak eskura izateak eskubide bat izan beharko luke, ezta?

Bai, argi eta garbi. Ez nuke nahi errepikakorra izatea, baina auzi honen oinarrian ere informazio eskubidea dago. Herritarrek jakin behar dituzte produktuen ezaugarriak, nola ekoiztuak izan diren... Produktu ekologikoek aukera hori ematen dute. Nik aldarrikatzen dut eskubide hori izan behar dugula. Gero eta nabarmenagoa da elikadurak osasunean zein haurren garapen fisiko eta psikologikoan daukan eragina. Hori jakinda, botere publikoek bermatu beharko lukete elikadura ekologikoa guztion esku egotea. Berdintasunaren arloan ere honek eskatzen du hausnarketa sakon bat, azken finean, elikadura egoki bat giza eskubideetan garrantzitsuenetarikoa baita.

Gurasoentzat, eskolan beraien seme-alabek jaten dutenaren inguruan erabakitze gaitasunik ez izatea arrazoi nahikoa izan liteke arartekoarengana jotzeko?

Oinarri nahiko izango luke azterketa abiatzeko. Inoiz ez digute planteatu, gaiaren inguruan izan dugun kexa bakarra botatzen

den eta beste behar batzuk asetzeko erabiltzen ez den janariari buruzkoa izan baita. Bestela, eza gutzen dudaneraino, jantokia sare publikoko eskola ume guztiek ziurtatuta duten zerbitzua da, botere publikoen berme guztiekin. Eskolan, behintzat, nutrizio irizpideek ezarritako proteina, zuntz, gantz eta azukre kopuruak ziurtatuta dituzte umeek. Baina, transgenikoen kasua berriz ekarrita, hor gaiak beste norabide bat hartzen du. Kaltegarriak izan daitezke? Zalantzak hor daude. Hortaz, sortzen den hurrengo galdera da, neska mutilen hazkuntza egokia bermatzeko, zein elikagai izango lirатеke egokienak? Ez naiz ari umeek jaso behar duten proteina edota gantz kopuruaz, baizik eta elikagaien beraien kalitateaz. Zeintzuk dira hobetsi beharko genituzkeen elikagaiak? Herritarrok informazioa eskuratzeko eskubidea daukagu. Elikadurarena oso gai garrantzitsua da, nabaria da dagoeneko gaixotasun asko elikadurarekin lotuta daudela; horregatik jarri behar da elikagaien kalitateari buruzko eztabaida mahai gainean. Zein da hobetsi beharreko kalitate maila? Auzia ongi dokumentatu eta oinarritu beharko litzateke, baina nik uste arartekoak hartuko lukeela. Nik, behintzat, hartuko nuke.

Hamar urte pasatxoko ibilbidean, elikadurarekin lotutako proposamenik egin al duzu?

Egiari zor, elikaduraren gaian ez dugu apenas proposamenik egin, ez dugulako erreklamaziorik jaso. Egin dizkidazuen planteamenduak entzun eta gero, ordea, herritar gisa gaia aztertzei asmoa piztu zait. Nire ondorengoari ere planteamenduok utziko dizkiot. Etorkizunera begira, arartekoaren instituzioa indartu egin beharko da, besteak beste, elikadurarekin lotutako hainbat gai inportante lantzeko gaitasuna izateko. Indartzea aipatzen dudanean ez naiz soilik baliabide gehiago izateaz ari, elikaduraren inguruan lan egiten duten eragileekin lankidetzaz jorratu beharko da, gaiak ondo aztertu eta oinarritzeko, ondoren beharrezko aldaketak bultzatzeko.

infraganti IKER VERGARA

Hikaren, Kabia Teatroaren eta Pabilioi 6 aretoaren “Gau arabiarra” antzezla-na ikustera joan direnak aho bete hortz geratu dira obraren soinu bandarekin. Lan horretan zuzeneko musika eta doinuak entzuten badira ere, oholtzan ez da musika instrumenturik ageri. Horren ordez, gazte bat dago, ahotsa soilik erabiliz hainbat doinu zuzenean sortzen dituen. Gazte hori Iker Vergara da (Bilbo, 1988), *Mufasha* ezizenez ezagunagoa, eta beatboxerra.

Azken urteotan hip hop kulturaren baitan sortu den fenomeno harrigarrienetakoa da beatbox deiturikoa. Askok «ahots perkusio» moduan definitzen dute mugimendu hau. Finean, ahotsa soilik erabiliz erritmo, doinu eta zaratak sortzean datza, bai bizitza errealean existitzen diren doinuak imitatuz bai berriak sortuz ere. Ahotsa soinu kutxa bat bailitzan, bat-bateko abesti eta doinuak sortzen ditu beatboxerrak, giro doinuak erakitzen ditu edota baita bestelako musika instrumentuak laguntzeko erritmoak ere.

Beatbox korrante musikala 1980ko eta 1990eko hamarkadetan jaio zen, Ameriketako Estatu Batuetako hiri handienetan, garai hartan loratu zen rap eta hip hop musika eszenari lotuta. Orduko rap eta hip hop talde askok, eskura baliabide gutxi eskura zituztenek batez ere, behar zuten soluzioa aurkitu zuten beatboxean. Hala, instrumentuak eta samplerrak ordezkatzeko eta beraien abestien erritmoak markatzeko ahotsa erabiltzen hasi ziren. Normalean, talde bakoitzeko kide batek markatu ohi zuen besteek jarraituko zuten erritmoa.

AEBetako mugetatik kanpo ere hedatzen joan da gutxikagutxika diziplina honen presentzia, baita mugitzen duen jende kopurua ere, nahiz eta gurean nahiko fenomeno ezezaguna den oraindik. Euskal Herrian, Iker Vergara, *Mufasha*, dugu beatboxer entzutetsuenetako bat. Gaztea bada ere, bilbotar honek ibilbide oparoa egina du honez-

Musika instrumentu bat bailitzan, ahotsa soilik erabiliz zarata, doinu eta erritmo desberdinak sortzeko gai da Iker Vergara. Euskal Herrian oraindik hain ezaguna ez den beatbox eszenan «Mufasha» izenez ezagunagoa, soinu kutxa harrigarria darama barnean bilbotar gazte honek.



Iker Vergara «Mufasha», Euskal Herriko beatboxer ezagunenetakoa.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

kero. Besteak beste, emanaldi asko emana da, eta beatbox txapelketa askotan emaitza apartak lortu ditu: 2009an, Estatu mailako beatbox lehiaketan hirugarren postua lortu zuen, eta, 2012an, Euskadiko txapelketan bigarren geratu zen. Bakarlari gisa ibiltzeaz gain, rap eta hip hop artista ezagun asko lagundu ditu oholtzan Vergarak: Violadores del Verso, Tote King eta Sotta, Jeru da Damaja, Markooz eta Lytos, eta abar.

GUZTIZ AUTODIDAKTA

Hip hopari esker ezagutu zuen beatboxa, 2003an. «Garai hartan 16 urte besterik ez nituen, baina hip hop musika asko jarraitzen nuen ordurako. Disko bat entzuten nenbilela, kantu batean mutil batek ahotsa soilik erabiliz egiten zituen soinuak entzun nituen eta zeharo harrituta geratu nintzen. ‘Ahoarekin egiten ari da hori guztia? Nola liteke?’, galdetu nion neure buruari. Benetan harrigarria iruditu zitzaidan», kontatu du. Disko hartan entzundakoa burutik kendu ezinik, deskubritu berri zuen hori probatzeko arra sentitu zuen. «Etxean, nire kabuz praktikatzeko eta entzundakoa errepikatzen hasi nintzen. Nire ahoan, diafragman eta birikietan bilatzen, soinu berriak aurkitu nituen». Halaxe hasi zen dena, «era naturalean eta gehiegi pentsatu gabe». Geroztik, ekimenaren ekinez ikasi du. «Egin dudana guztia nire kabuz egin dut. Ez naiz inoiz musikako edo abesten ikasteko klaseetara joan; gainera, beatboxean formazio espezifikorik ere ez dago, momentuz behintzat. Etxean, nire kabuz praktikatzeko ikasi dut dakidan guztia, zentzu horretan guztiz autodidakta izan naiz».

Batzuen iritziz, arte galdu bat da beatboxarena, gaur egun ordenagailuak edo sintetizagailuak direlako erritmoak markatzeko tresna aproposenak. Dena den, ezin ukatu inondik inora beatboxerren abilezia eta gaitasun apartak. Hori bai, berezko abilezia edukitzeaz gain, ordu askoko praktika ezinbestekoa dela dio Vergarak. «Ez dago ber-

tute edo gaitasun espezifikoen zerrendarik honetarako, norberak bere gaitasunak deskubritu behar ditu, eta hortik aurrera bide bat edo beste bat jorratu. Ez dago beatboxer ona izateko errezeta magikorik. Balio duen bakarra, praktikatzea eta orduak sartzea da, izan ere, nahi ditugun soinuak ez zaizkigu aurrenekoan aterako», dio.

Berak egunero lau zapabost ordu ematen ditu entseatzen. «Normalean etxean, ordenagailuaren aurrean eta mikrofonoarekin aritzen naiz. Dena den, edozein leku eta une izan daiteke ona, ez baitakizu inspirazioa noiz agertuko den. Batzuetan, gutxien espero duzunean sortzen dira gauzak. Horrelakoetan, ateratzen dena mugikorrean grabatu eta gorde egiten dut, gero etxean lantzeko».

Soinuak eta musika instrumentuak imitatzean datza, finean, beatboxa, eta, horretarako, doinu asko batera sortu behar dira, edo sentsazio hori sortu behar zaio entzuleari bederen. Hala ere, giza ahotsak mugak ditu horretarako, eta belarria engainatu behar izaten da batzuetan. «Aldi berean soinu bat baino gehiago sortzen ari zaren sentsazioa eman behar duzu, baina, azken finean, doinu bat egiteari uzten diogu beste bat egiteko. Kontua da bi doinuen arteko tartea hain izaten dela laburra, giza belarriak batera ematen diren doinuak balira bezala hautematen dituela».

Bitxia badirudi ere, ezarriak ez du apenas lanik egiten beatboxean, baina bai mingainak eta ahoak. «Soinu espezifikotxiki batzuk lantzeko soilik erabili behar izaten dugu ezarria. Hala ere, gutxi dira ezarria kalte dezaketenak; adibidez, baxu elektroniko baten hotsa imitatzea izan daiteke bat. Beraz, ezarria ere pixka bat zaindu behar izaten dugu, abeslarien antzera». Bestalde, giza ahotsak mugak dituela onartu du Vergarak. «Ez gara makinak, eta gure ahotsa ezin daiteke leku guztietara heldu. Sarritan, itsutsu egiten gara soinu edo zarata jakin bat lortzeko ahaleginean. Jo eta ke entseatzen egon arren, agian ez da



«Gau arabiarrak» antzezlanaren soinu banda berea da. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

inoiz aterako. Hala ere, bidean beste zerbait aurki dezakezu». Izan ere, hain justu horrek berak, helmuga jakin bat ez edukitzeak, bihurtzen du magiko beatboxinga, Vergararen iritziz: «Zehazki zer lortu nahi dugun jakiten ez dugunez, etengabe inprobisatzen aritzen gara. Oso diziplina irekia da; ez dago derrigor jarraitu beharreko biderik, eta horrek ematen dizu aukera zure bidea egiteko, etengabe probatzeko eta beti zerbait desberdina bilatzeko. Horrek askatasun handia ematen du».

Urteekin bere teknika hobetu duen arren, Vergarak ez du uste estilo jakin bat bereganatu duenik. «Batzuetan jendeak esaten dit, abesti bat entzun eta berehala identifikatzen duela nire estiloa. Beatboxer askorentzat hori sekulakoa da, baina nik gauza berriak eta desberdinak egin nahi ditut. Ez dut nire burua mugatu nahi». Hain justu, kontrako tendentzia ematen ari dela ikusten du Vergarak: «Iru-

dipena daukat gaur egun jende askok norabide antzekoa hartu duela, tendentzia eta estilo berdintsuak ari direla nagusitzen, eta batez ere lehiaketetan ikusten da hori argien, gauza jakin batzuk baloratzen direlako gero eta gehiago. Normala da modak egotea, baina denok berdina ezin dugu egin. Hain justu, beatboxaren alderik onena bere aniztasuna da». Joera horren aurrean, inprobisazioa aldarrikatzen du Vergarak.

DIZIPLINA ANITZA

Soinuak, melodiak, musika tresnen imitazioak edo gainean repeatzeko erritmoak. Denetarik egin dezake Vergarak ahots soilarekin. Baina baita egunerokotasunean aurki ditzakegun hainbat soinu eta zarata ere, animalia bat, kafe makina bat, edo tren bat abiadura bizian, esaterako. Askorentzat, eta ikuspegi tradizionalista dutenentzat batez ere, beatboxa musikari lotuta doan zerbait da, baina Ver-

gara ez da pentsaera horretakoa. «Raparekin, breakdance dantza-rekin, grafitiekin eta turntablism korrontearekin batera, hip hoparen bosgarren elementua da beatboxa, askoren ustez. Gainontzeko lau horiek zehatz-mehatz definituta dauden diziplinak dira, baina gurea oso fenomeno zabala eta anitza da. Gaur egun, beatboxa bera bilakatu da diziplina oso, eta ez du zertan hip hop musikarekin lagunduta etorri behar derrigor. Beatboxer batek lagun ditzake rap edo hip hop doinuak, baina egin ditzake beste gauza batzuk ere, egunerokotasuneko doinuen imitazioak, adibidez, nik egiten dudana antzera». Hala, gaur egun beatboxer askok hip hoparekin zerikusik ez duten emanaldiak eskaintzen dituzte.

Euskal Herrian fenomeno berri samarra izaki, oraindik gutxi dira beatboxer euskaldunak, baina gurean ere hazten ari den fenomeno da. «Bilbon badago Boris izeneko beatboxer bat dezente mugitzen ari dena, eta Barakaldoko Rufok ere ibilbide oparoa egin du, orain beste saltza batzuetan dabilen arren. Uneotan Euskal Herri mailan gu hirurok ari gara batez ere. Hala ere, kontuan izan oso eremu anitza dela gurea; ni orain antzezlan batekin ari naizen gisa, beste bat dantzari batekin ari daiteke, eta beste bat hip hop talde batekin. Beatboxa praktikatzeko ez dago modu bakar bat, bakoitzaren esku dago bere abilezia non eta nola erakutsi. Askok ezagutzen ez den eremua denez, asko dago probatzeko».

Azken urte hauetan bere gaitasunak txapelketa desberdinetan erakutsi izan ditu Vergarak. 2009an, espainiar Estatuko beatbox txapelketetan hirugarren postua lortu zuen, eta, 2012an, bigarren izendatu zuten Euskadiko txapelketan. Lehiaketak norbere gaitasunak erakusteko eta beste beatboxekin harremanetan jartzeko aukera ona direla uste du, baina konpetentzia eta lehiakortasun handia nabaritu du azkenaldian, eta ez da hori orain bilatzen ari dena. Hartara, txapelketak alboratu egin ditu, beste proiektu batzuetan zen-

tratzeko. «Beatboxerra naiz, bai, baina zer egiteko gai naizen erakusteko ez dut derrigor beste beatboxer batekin lehiatu behar; nahiago dut pertsona horrekin arratsalde batean geratu eta bion artean zerbait sortu. Orain jendearekin eta jendearentzako gauzak egin nahi ditut, hori eskatzen dit barrenak; sortu egin nahi dut lehiatu baino gehiago».

ANTZERKIAN, AURRENEKOZ

Sortzeko eta esperientzia berrietan murgiltzeko gogo horrek eraman du antzerkiaren mundura, «Gau arabiarrak» antzezlanari esker. Arte eszenikoen arloan aurrez inoiz lan egin gabea, esperientzia berriak bizitza aldatu diola dio. «Benetako aurkikuntza izan da antzerkiarena; aktoreekin lan egiteak burua eta bihotza zabaldu dizkit, eta eza gutzen ez nuen mundu bat probatu eta bertan nire hondar alea utzi ahal izan dut. Gainera, niretzat erronka handia izan da ordubete baino gehiagoko emanaldi batean modu jarraituan aritzea, ez nago horretara ohituta. Egia esan, penaz bukatu ditut entseguak, baina badakit emanaldi gehiago etorriko direla eta elkarlanak jarraituko duela».

Antzerkiko esperientziak indarberrituta, gauza berriak probatu nahi ditu. «Beatboxer bezala emanaldi dezente egiten ari naiz eta rap talde batekin ere banabil kontzertuetan. Horrez gain, tailerrak ematen ere ari naiz. Orain, gainera, gitarra jotzen ikasten hasi naiz. Arraroa dirudien arren, etorkizunean gustatuko litzaidake beatboxa eta gitarra uztartzea. Nork daki, agian zerbait interesgarria atera daiteke». Beatboxa bere bizitzaren erdigune bilakatu bada ere, Vergarak argi dauka: hau zaletasun bat baino ez da. «Momentuz behintzat, honetatik bizitzea mundu osoan gutxi batzuen eskuetan dagoen pribilegioa da. Baina argi daukat beatboxa dela nire benetako bokazioa eta zoriontsu egiten nauena, beraz, ahal dudana bitartean, honekin jarraituko dut». •

Julene LARRAÑAGA

Azken urteotan hip hop kulturaren baitan sortu den fenomeno harrigarrienetakoa da beatbox deiturikoa. «Ahots perkusio» moduan definitzen dute askok mugimendu hau

Finean, ahotsa soilik erabiliz erritmo, doinu eta zaratak sortzean datza, bai bizitza errealean existitzen diren doinuak imitatuz bai berriak sortuz ere



Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria

Euskaltel: «Wifi is in the air»

Gutxik esan dezakete, ziur aski, ez dutela Euskaltelen azken balentriaren berri izan. «Bizitza kalean gertatzen delako. Wifi is in the air». Hori da leloa. Irratiko iragarki laburrak kaleen izenak aipatzen ditu, bata bestearen atzetik, gaztelaniaz hasieratik eta ia bukaerara arte. Eta balentria honen beste mezua honakoa izan da: «Euskaltelek 128.000 wifi puntu piztu ditu Euskadiko kaleetan, Euskalteleko mugikorrarekin DOAN konekta zaitezzen». Piztu? Wifi puntu berriak dira, ala? Edo aurrez ezarrita zeuden eta itzalita zeuden? Eta zeren zain zeuden pizteko? Horrela irakurrita, euren bezeroei (ni barne eta pozik, gainontzean) zerbitzu gehigarri bat eskaintzeko ahalegina egin dutela interpreta daiteke, fidelizazioaren mesedetan. Eta, noski, nabaria da bezero berriak erakartzeko kanpaina bat ere badela. Baina distira guztiak ez dira urre.

Kanpainaren berri izan orduko, nire etxeko wifi sarea Euskalteleko gainontzeko bezeroekin partekatzen hasteko erabakia hartu zutela pentsatu nuen. Sartu nintzen Euskaltelwifi.com webgunean. “Non konektatu” atalean, mapa bat agertzen da. Zooma erabili nuen nire etxeraino iristeko. Eta han ikusi nuen, nire etxe inguruan, 128.000

puntu horietako bat (eta inguruan beste batzuk). Eta nabaria zen herrietako etxebizitzetan “piztu” zituztela puntu horiek (urruneko kontrolaren bitartez modemak konfiguratuz). Eta, bezero gisa, ez gintuzten jakinaren gainean jarri, egia da. Eta, ziur aski, gisako detaileekin doako wifi sareak eskaintzearekin ezin konpentsa daitekeen mina eragiten da fidelizazioan. Baina bezero ikuspuntutik sentitu nuen uneko mini-haserre horretaz harago, nire baitarako lehendabiziko galdera hauxe izan zen: prest al nago nire wifi sarea partekatzeko?

Galdera delikatua da. Suposatzen dut, nire kasuan, software librearen munduan eta horren defentsan aritzeak ere ematen diola izaera delikatu hori. Jakintza partekatzea defendatu dut beti, eta aplikazioak. Eta, oro har, ñabardura askorekin, partekatzearen filosofia, mundu digitalean. Aukera bat emango niola erabaki nuen. Baina lehendabiziko egunean bertan igarri nuen etxeko wifi sarearen konexioa moztu eta berriz ere martxan jartzen zela. Ez dakit inor konektatuta zegoelako gertatu zen. Edota “pizte” horren ondorio zen. Beste aukera bat eman nion, baina hurrengo bi egunetan ere berdin.

Ordurako, sarean irakurria nuen Euskaltel.com webguneko bezeroen

txokotik “itzali” zitekeela norberarena. Egin nuen. Ez zen bi klikeko gauza izan, baina topatu nuen eta “itzali”. Arazoak jarraitu zuen. Arreta zerbitzura deitu eta urruneko kontrolaren bitartez konfigurazioan zerbait egin zutenean, konpondu zen.

Hortaz, puntu bat gutxiago dago jada Euskadiko kaleetan. 128.416 zirela jartzen zuten lehen egunean, Euskaltelwifi.com webgunean. Orain ere zenbaki berbera jartzen du. Baina mapan ez da agertzen nire. Ez legoke gaizki bezeroek hartutako erabaki bakarraren berri emango balute: “itzaltzea”, eurei galdetu gabe “piztu” dena. Ez baitugu beste erabakirik hartzeko aukerarik izan.

Egunotan segurtasun kontuak aipatu dira sarean. Baita kontratuaren klausulak pasa den abenduan aldatu zituztela ere. Niretzat, halere, hartutako benetako erabakia eta hori kudeatu eta jendaurrean saltzeko erabili duten mezuaren arteko aldea da deigarriena. Estatistikak irakurtzeko modu asko daudela badakigu, baina maila pertsonalean jendea zaindu egin behar da eta zer esanik ez jendea bezeroa denean.

Zalaparta honetan, Euskaltel bera esnatu edo “piztuko” zela espero dut, ez besterik. Bestela, hurrengoan, bezero gisa galduko naute. •



Euskaltelek 128.000 wifi puntu piztu omen ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kaleetan.

THINKSTOCK



IKUSMIRA



Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

KORRIKA, OPARIAK EMAN BEHARREAN JASO EGITEN DITUEN OLENTZERO

Zuia eta Añanan barna, euskaldun aunitzek hain gutxi ezagutzen ditugun Arabako lur hauetan idatzia da testu hau. Elurretan noizbehinka, eguzkiak kukuren bat egiten duela besteetan, galtza motzetan ari dira lasterka korrikalariak, nongoak diren nabaritu dadin.

Mendilerro zurien azpitik, etxe ederren ondotik, paraje izugarrien barrenetik eta, hoberena, zoro zoragarriekin batera joaki da Korrika aitzinera. Hala izendatu ditu furgonetan animatzaile lanetan dabilen Iratik: «Badakizue momenturen batean, Euskal Herriko txokoren batean zoro kuadrilla bat dabilela lasterka? Zoro horiek zoragarriak dira eta momentu honetan zuek zarete». Hala konkistatu ditu denak.

Gehienetan jende andanak zabaltzen du euskarenen aldeko mezua, bertzetan talde ttipiagoez, eta hauekin giro intimoagoa izaten da. Elkarriketak eta jolasak sortzen dira furgonetako kideen eta lasterkarien artean, ostatu batean elkar topatu eta ezagutuko balute bezala, edo desberdin, badutelako, elkar ezagutu aitzinetik ere, lotura berezi bat. Horren seinale dira bide osoan zehar jendeak elkarri ematen dizkion animoak: txaloka, eskuarekin agur eginez, irribarre keinu batekin, muxuak botaz...

Prensa taldean komentatu dugu Korrikako peto jantzi eta edozein herritara ailegatzean, berri onak zabaltzera datorren Olentzero sentitzen garela. Desberdintasun batekin: Olentzero honek, eman

beharrean, jaso egiten ditu opariak: txokolate beroa bizkotxoekin Larraurain, patxarana Lodosan, maldenak Tuteran, gazta Anizen... pasatzen den orduan pasatzen dela, denetan zerbait. Umeek eurek egindako petoak oparitzen dizkiote, eta aitatxi-amatxiek dirua eskaini. Ostatuan hamabi ogitarteko eskatu eta ez dizkiote kobratzen, eta Aiarako Menagarai herrian, Mendieta Etxean, etxean baino hobeki jan eta atseden hartu du deus ordaindu gabe. Korrika sorreratik ezagutzen duen Barakaldoko emakume batek oroitu duenez, garai batean elizako kanpaiak ere jotzen zituzten lasterketa pasatzean.

Bihar arte, zoro zoragarriak! Milesker. Maider lantzi

ORAIN DA UNEA

Egin zaitez harpidedun eta lortu **IPHONE 6a** edo **GALAXY S6a!**

10 **IPHONE 6**
eta **SAMSUNG**
GALAXY S6ren
zozketan sartuko
zara!*



Gainera **OPARI ZORAGARRI** hauetako bat jasoko duzu:

- Lehen hilabetea **DOAN**.
- edo **Miarritze XD Soft**, udaberrirako kalitate handiko jaka**



● **Urdina** ● **Beltza** ● **S** ● **M** ● **L** ● **XL** ● **XXL**



****MIARRITZE XD Soft** jaka. (merkatuko balioa 130€)
Bluesing estandar ekologikoa duten kalitate handiko jakak. Material birziklatu eta biodegradagarriekin eginak. Ingurumenarekin errespetu osoz ekoiztuak eta animalien lumarik erabili gabe.



EGIN ZURE HARPIDETZA!
DEITU ORAIN 943 50 60 10

Zeintzuk dira harpidedun izatearen abantailak?

- **%5 merkeagoa** eskuratuko duzu GARA egunero
- **Deskontu bereziak** GARAREN promozio guztietan
- Urte osoan zehar **HARPIDEDUNEN TXOKOAN** banatzen ditugun ekitaldi desberdinetarako **sarrerak eskuratuko dituzu**
- **DOAN interneteko XXL harpidetza:**
NAIzen barruan dauden **Premiun edukietara sarbide librea** izango duzu. GARAKOAK, MEDIABASKOAK eta laster 7K-koak barne. Gainera GARA egunkari osoa PDFn irakurri eta deskarhgaratu ahal izango duzu.

Harpidetza orain egiten baduzu, zuzenean **10 telefono mugikorren zozketan** sartuko zara. Saridun suertatzen bazara, zuk aukeratzen duzun telefonoa eskuratuko duzu (iPhone6, iPhone6 Plus eta Samsung Galaxy S6).

Gainera ongi etorri opari bat jasoko duzu: lehen hilabetea doan edo Miarritze jaka. Bietatik nahiago duzuna!

* Maiatzaren 8a baino lehen harpidetza egin duten guztien artean 10 iPhone 6 16GB, iPhone6 Plus 16GB eta Samsung Galaxy S6 16GB zozketatuko dira. Saridun suertatuz gero, nahi duzun telefonoa aukeratu ahal izango duzu. Gainera, opari zoragarri bat jasoko duzu: lehen hilabetea doan edo Miarritze XD Soft jaka. Bietatik nahiago duzuna.

Harpidetza promozio honetan parte hartzeak 6 hilabeteko egonaldi konpromisoa dakar.

HARPIDEDUNENTZAT OHARRA: Emaila igorri dizuegu harpidedun guztioi martxoaren 17 an mugikorren zozketan nola parte hartu eta NAIzko jaka hauek nola eskuratu azaltzen.

